

hh
hik hasi

Federico Malpicari elkarrizketa
Mexikoko irakasleak erreformaren aurka
Pedagogo sortzaileak:
Francesco Tonucci
Nola landu ahozkotasuna eskolan?
Homofobiaren aurka lanean
Angel Erro

9
12
2



ERROMATIK ANDOAINERA

UDAKO IRAKURGAIK

0-8
urte



+8
urte

Ixon Ana Jaka + Alex Orbe


Las da berentsako izena, baina Ixon denboran dote beti nahir egiten delako, hainko batean, bitz egitea ere abaztu duen arte. Itxerik jaungo da erdian, eta abentura hanturamuk esagutako dion gero, bakoan topatzen dituen rock miratari bitzaren eskutik.

haurrak

Hodeietan
Txabi Arnal + Enrique Morente

Gaizkako urte jokatuena zen, Txabi eta Txuleta bereak elkar-
ntzen bitartean. Baina borrokatuak gero bitzak, bi lagunak galdu egin-
zauri, urte berri, Txabi eta Txuleta ez zuten maldotak, lagunak izanik.

+6
urte



+6
urte

Eta sagarrondoa banintz? Paddy Rekalde + Iosu Mitxelena

Arantz karitate sagar sagarra jaten ari zela, hasiat jan dita-
eta sagarrontzu da eskolan irakurketa ematen diola huz etetik sortzen
dion lantze berriak. Arantz beldu da sagarrontzu bat ez ate den
tere bantatik so tulo.

elkar

www.elkarargitaletxea.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

MEXIKO IRAKASLEAK ERREFORMAREN AURKA

Mexikoko lehendakaritza eskuratu eta, berehala, hezkuntza-errefor-
ma ezarri zuen Enrique Peña Nietok, baina estatu osoko irakasleak
aldaketen kontra agertu dira, haien esanetan ez baitu hezkuntza
hobetzeko asmorik, irakasleak kontrolatzea baizik. Ondorioz, protesta
gogorak ari dira egiten, eta gobernuak armaz eta odolez erantzun die
irakasleei.

ELKARRIZKETA / 18

FEDERICO MALPICA

Heziketa zientzietan doktorea da Malpica, eta irakaskuntzaren kalitate-
rako Scalae institutuaren kofundatzailea eta zuzendaria. Ikastetxeetan
berrikuntza-prozesuak egiteko bi baldintza bete behar direla dio: bate-
tik, prozesu horiek kolektiboak izatea; eta bestetik, ikaslearen garapen
osoan pentsatuta egotea.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK.
TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila
eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA
GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ;
www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa:
hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua:
SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi,
Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta
Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna,
Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren
Guilló, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Elisabet
Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua,
Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel
Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola,
Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran,
Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria,
Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe
Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza,
Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Diseinua: GrafIk.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
Sailak onetsia (2017-05-24).

Kopurua: 4.100 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz
balia zaitezke. Kasu horietan iturria
aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez
ditu bere gain hartzen bertan plazaratu-
tako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki
haiekin.

5 EDITORIALA

Posible da

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Nork hil zuen Claudio Castillo?
Mexikoko irakasleak
hezkuntza-erreformaren
aurka

18 ELKARRIZKETA

FEDERICO MALPICA

“Hezkuntzako berrikuntzaren
gakoa irakasleengan dago,
egunero klasea ematen du-
gunok egiteko gai garen ho-
rretan, hain justu”

26 EKARPENA 1

FRANCESCO TONUCCI

30 EKARPENA 2

LEIZARAN ESKOLA

34 GALDEIDAZU

JOSUNE ZABALA

Nola landu ahozketasuna esko-
lan?

38 PROPOSAMENA

Steilasek homofobiaren
aurkako unitate didaktikoa
egin du

40 ATZEKO ATETIK

Angel Erro

42 ARGITALPENAK



IZEI eta HODEI

hertzak



POSIBLE DA

editoriala

HARREMANEK BIZITZAKO ASPEKTU GUZTIETAN dute ERAGINA. GAIZKI TRATATUA DEN HAURRAK NOLAKO TRATUA EMANGO DIE BERE KIDEEI? NOLAKO HARREMANAK ERAIKIKO DITU?



Posible da, bai, bestelako harreman-eredu bat posible da. Osasuntsuak, errespetuzkoak. Hitz horien benetako balioaz hausnartzeko parada eman ziguten *Herrri Hezitzailea*, *Eskola herritarra* jardunaldien hirugarren ekitaldiek. Eta atxikimendua, taldeko parte izatea, mendekotasuna, askatasuna, jazarpena, parekidetasuna... hitzok guztiok berriro pentsatzeko aukera eman ziguten. Hitz hutsalak baitira, norberak bere buruari galdetzen ez badio hurkoa errespetuz hartzen duenentz beti? Eta haurra? Ikasleak? Errespetuz, errespetuak bene-benetan esan nahi duen zentzu horretan.

Gai arantzatsu bat jarri genuen jardunaldion erdigunean: Harremanak. Arantzatsua, hasteko eta behin norberetik hasten baitira harremanak, eta beraz, norbere buruaz hausnartzera eraman gaitu aurtengo jardunaldiak. Nola harremantzen naiz ni? Nola nire ikasleekin? Errespetuz, baina benetako errespetuz? Eta oro har hurrekin, jendartearekin, gizon zein emakune, bertan jaio zein kanpotik etorritakoekin? Norbere beharrei eta gabeziei begiratzea eskatzen du harremanez hausnartzeak, betetzeko noski, hobetzeko beti. Zorionez, hobetzerik bai baitago beti.

“Haurra etorkizuneko pertsona” da eskolarentzat, beraz, haurra subjektutzat hartzen al du eskola-sistemak? Gaur eta hemen, gure eskolatan dauden ikasleei arreta eskaintzen al die bene-benetan, ala etorkizuneko gizarte horretan pentsatzen ari da eskola? Horra Heike Freirek utzi zigun hausnarketa bat.

Eta Leo Pahkin Finlandiako Hezkuntza ahol-

kularik ongizatea eta bikaintasun akademikoa eskutik doazela erakutsi zigun, Finlandiako Hezkuntza Sistemaren helburua pertsona onak sortzea eta herritar onak sortzea baita, eta horren xerka, urterik urte, emozioak, komunikazioa, zaintza, enpatia lantzen dituzte, espresuki. Haur guztien ongizatea zaintzeko.

Baina adibiderik bikainena etxeok eman ziguten: Donamartiriko Arberoa ikastolakoek. Ongizatea helburu, ikastolako bizitza osoa, eta orobat jakintza ardatz horretara dute ekarria. Eta ongizatea arnasten da bai Arberoan. Komunikazio Ez Bortitza lantzen dute hurrekin, baina ez hurrekin soilik, baita familiekin eta irakasleen euren artean ere. Maialen Etxart irakasleak esan bezala, “tratu onak, ongizate nahia eta Komunikazio Ez Bortitza, ez dira ikastolan soilik aplikatzen ditugun gaiak, horiek bizitzara eramaten ditugu, bizitzako aspektu guztietara”. Ikastola zoriontsu baten adibide hunkigarria, Donamartirikoa, zinez.

Harremanek bizitzako aspektu guztietan baitute eragina. Gaizki tratatua den haurrak nolako tratua emango die bere kideei? Nolako harremanak eraikiko ditu? Nolako pertsona izango da? Nolako langilea, nolako nagusia, nolako irakaslea, nolako bikotekidea, nolako gurasoa, nolako adiskidea, nolako herritarra?

Bada posible da hazi osasuntsuak ereitea. Hurrengo gizarte ez dadin hau bezain gaixoa izan, hain mendeko, hain otzan, hain zorigaitzoko. Eta egungoa ere osasuntsuago bilaka dadin. Izan posible baita.

“Normalizazio linguistikoa gure apustu handienetako bat izan da, Kataluniaren historian urrezko letrekin idatziko dena”

Irene Rigau



HEZKUNTZA PUBLIKOAN HIRUGARREN GREBA EGIN DUTE ARABAN, BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN

Maiatzaren 16an eta 23an greba egin zuten. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan, unibertsitatetik kanpoko mailetan. Gehiengo sindikalak egin zuen deia —ELA, LAB eta Steilas—, eta sindikatuon arabera «oso erantzun zabala» izan zuen huelgak. Haatik Eusko Jaurlaritzak azaldu zuen langileen erdiek egin zutela. Martxoan egindako lanuztearekin, dagoeneko hiru greba egin dituzte hezkuntza publikoko irakasleek. Negoziazioetan aurrerapenik ez dago, ordea, eta hurrengo ikasturteari begira jarri dira irakasle eta sindikatuak.

Lau esparrutan deitu dute protestara: irakasleak, heziketa berezia, sukaldariak eta garbitzaileak, eta Haurreskolak partzuergoa. Sindikatuak salatu dutenez, bilerarik ere ez dute egin heziketa berezian, ezta sukaldarien eta garbitzaileen esparruan ere. Haurreskolak partzuergoan, bai, baina adostasunik ez da. Irakasleei dagokienez, hilaren 4an bildu zen mahai sektoriala, sindikatuetakoa eta Hezkuntza Saileko ordezkariak han zirelarik. Zatiketa bistan geratu zen berriro.

Iragarpen bat, bai, egin du gobernuak: hezkuntzan lan eskaintza bat egingo dute urtero agintaldi honetan. 3.000 lanpostu izango dira guztira —aurten eskainiko dituzte horietako 740—. Jaurlaritzaren esanetan, horrekin handitu egingo da irakasleen eta hezkuntza sistemaren «egonkortasuna». Behin-behinekotasuna jaisteko asmoa agertu du horrela.

Sindikatuak, baina, hutsaltzat hartu dute eskaintza hori. «Erretiroen kopurua baino are txikiagoa da 3.000 postuko lan eskaintza», ohartarazi du Steilas sindikatuko arduradun Ana Perezek. «Horrekin ez da behin-behinekotasuna jaitsiko», dio Irastorzak.



ZORTZI URTEAN, IRAKASLEEN AURKAKO 193 ERASO SALATU DITUZTE NAFARROAN

Nafarroako Gobernuak eta sindikatuak txosten bat ondu dute hezkuntza esparruan gertatzen den indarkeriaren inguruan lan egiteko. Txosten horren arabera, irakasleak eta bestelako langileak dira ikastetxean indarkeria salatzen duten gehienak; 2008-2009ko ikasturteak iazkora, 165 kasu jakinarazi zitzioten Laneko Arriskuen Prebentziorako Sailari, eta, ikasturte honetako lehenbiziko hiruhilekoan, beste 28. Zortzi ikasturtetan, 193 erasoren berri izan du, beraz, Nafarroako administrazioak. Horietatik 109 fisikoak izan dira; 76, ahozkoak; eta zortzi, lapurretak.

Irakasle erasotzaileak, oro har, gizonetakoak dira, eta erasoak jasan dituzten irakasleen bi heren, emakumeetakoak. Kasu gehienak DBHn eta erdi mailako zikloetan atzeman dituzte, eta gutxiago batxilergoan eta goi mailako zikloetan.

Datuok, ordea, ez dute errealitate osoa islatzen. Ikerketaren egileek ere onartu dute zailtasunak izan dituztela egoeraren irudi orokorra osatzeko, irakasle askok ez dutelako erasoen berri ematen, edo ez dakitelako protokolo bat existitzen dela.

Nafarroako Gobernuak iazko irailean eratu zuen ikasgeletako indarkeriari buruzko lantaldea. Han elkartu ziren, besteak beste, hezkuntzako ikuskerak, bizikidetzako eta prebentziorako aholkulariak, psikologoaketa sindikatuak.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

HARREMAN-EREDU OSASUNTSUAK POSIBLE DIRELA IKUSI DA OINHERRIREN JARDUNALDIETAN

Maiatzaren 19 eta 20an Donostian Hik Hasik Oinherriren izenean burutu zituen *Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra* III jardunaldietan ikusi ahal izan zen bestelako harreman ereduak posible direla, eta baita eskola testuinguruan ere. Besteak beste, Donamartiriko Arberoa ikastolak erakutsi zuen posible dela ongizatean eta Komunikazio Ez Bortitzean oinarriturik, ikasle, irakasle eta familiak gustura elkarbizitzea ikastetxean. Lorea Agirrek eman zien hasiera jardunaldiari, eta atxikimendua, parte izatea, eta parte hartzea banako nahiz kolektibo gisa zeinen garrantzitsua den azaldu zuen. Leo Pahkinek Finlandiako hezkuntza sisteman ongizatea— pertsona onak sortzea eta herritar onak sortzea— erdigunean dagoela adierazi zuen, besteak beste.

EBALUAZIO PROBA BERRIRIK EZ EGITEKO ESKATU DIOTE EUSKO JAURLARITZARI

Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 4.ean ebaluazio probarik ez egiteko eskatu dute EHIGEk eta Ikastolen Elkarteak. Azken horren iritziz, ebaluazio sistema zehazteko eztabaidatu beharra dago, eta probak ez egitea LOMCEren «inposizioari aurre egitea da».



HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN



HEZKUNTZA MASTERRAK

Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra (BERRIMET) online

Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaztunetan unibertsitate masterra (EKOMU) online

Overgoomezko bigarren hezkuntzan, babelergoan, lanbide hizkuntzetan eta hezkuntzen irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra

INFORMAZIO SAIOA

ESKORIATZA

EKAINAK 15, osteguna, 18.00etan

www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak



39 IKASTARO AUKERAN, HIK HASI-REN UDAKO 39. TOPAKETETAN, DONOSTIAN ETA LEIOAN

Pedagogia Sistemikoa, eskola-testuinguruko gatazka-uneetan esku hartzeko baliabideak Pikler pedagogiaren ikuspegitik, jendaurrean hitz egiten ikasteko teknikak, eguneroko gatazkak konpontzen ikasteko baliabideak, entrenamendu mentala, heziketa emozionala, askatasunerako pedagogia, haurren autoestimua lantzeko ikastaroa... orotara 39 ikastaro eskainiko ditu aurten Hik Hasi egitasmo pedagogikoak Udako Topaketetan, Donostian uztailearen 3, 4 eta 5ean eta Leioan uztailearen 6 eta 7an. Matrikulazioa zabalik egongo da hikhasi.eus webgunean, ekainaren 25a arte.



REGGIO EMILIAKO HEZKUNTZA-EREDUA EZAGUTZEKO BIDAIA PEDAGOGIKOA EGINGO DU HIK HASI-K URRIAN

Ekainaren lehen zabalduko da izen ematea, eta taldea osatzen bada, Hik Hasi egitasmo pedagogikoak Italiako Reggio Emilia hirian garatzen ari diren hezkuntza proiektu aurrerakoa ezagutzeko bidaia pedagogikoa egingo du, urrian. Aurtengo berrikuntza Lehen Hezkuntzara egin duten hedapena izango da, hain justu. Hilaren 11, 12 eta 13 formazio egunak izango dira, arlo teorikoa ezagutzeko aukera izango da, eta ikastetxeetako bisitak egingo dira [0-3ko zentroak, 3-6 urte bitartekoak ikastetxeak eta 3-11 urte bitartekoak Loris Malaguzzi zentroa bisitatuko dira].

EUSKARAZKO 26 IKASTARO ESKAINIKO DITU EHU-K UDAN

Ekainaren 7tik irailaren 15era bitarte, 139 ikastaro, tailer eta jarduera profesional izango dira, hogei kongresu, on line egiteko hogei ikastaro, eta publiko ororentzako 11 jarduera. 26 ikastaro eskainiko dituzte euskaraz; 142 gaztelaniaz, hogei ingelesez izango dira, eta bi, frantsesez.

Azken hilabeteetan hizpide izandako gaiak jorratuko dituzte. Besteak beste, Erromako Tratua, eta brexit-ak eta mugimendu politiko berriek Europako Batasunera dakartzaten itaunez solastatuko dira. Ekonomia kolaboratiboa izango da beste gai nagusietako bat; bereziki, fiskalitatearen aldetik aztertuko dute. Klima aldaketaren inguruan eta Parisako akordioaz ariko dira. Umeen transexualitateaz, teknologia berriek ekarritako ziberdelituez eta gizarte aldagaiek osasunean duten ondorioez ere ariko dira.

CHRYSALLISEK BIDEO BAT EGIN DU, TRANSEXUALEN ERREALITATEAZ

«Zakila duten neskek, alua duten mutilak: aniztasunaren beste alderdi bat» izeneko bideoan, panpin batzuen elkarriketarekin abiatuak, haurren transexualitatea espezifikoki lantzeko materiala ondu du Adingabe Transexualen Familien Elkarteak.

HIZPIDE IZANGO DA

SAREAN EUSKARA IKUSGARRI BIHURTZEKO BI EGITASMO ABIATU DITU PUNTU EUS FUNDAZIOAK

Batetik, gailuak euskaraz konfiguratzeko kanpaina hasi du, eta fitxategiak partekatzeko webgune bat sortu du: 'Tori.eus'. Adituen arabera, hizkuntzen %5 soilik daude sarean, eta talde horretan dago euskara. Domeinu propio eta guzti, gainera. Baina hutsuneak daude oraindik ere. irenak baino gutxiago azaltzen dira euskaldunak sarean. Gehienek erdaraz konfiguraturata dauzkate Interneterako gailuak, eta, nahiz eta euskarazko edukietan ibili, erdaldun ageri dira. Kanpaina bat jarri dute martxan, gailuak euskaraz ezartzeko. *Interneten ere lehen hitza euskaraz*, eta izen bereko web orrialdearen bidez erraz egin liteke. Lau eragile bildu dira: Puntu Eus fundazioa, Codesyntax, Kontseilua eta Ikastolen Elkartea.



POSTGRADO EN psicomotricidad Psikomotrizitateko GRADUONDOKOA

¡PLAZO DE MATRÍCULA
ABIERTO!

AURREMATRIKULA EPEA
ZABALIK!

N.º de créditos: 30 ECTS = 750 h

Título expedido por IL3-Universidad de Barcelona

Kreditu kopurua: 30 ECTS = 750 ordu

IL3-Bartzelonako Unibertsitateak igorritako titulua



Institut de
Formació Contínua-IL3

UNIVERSITAT DE BARCELONA



www.orueeskola.org

Tel. 946 300 058



ORUE ESKOLA · San Miguel de Dudea, s/n · 48340 AMOREBIETA-ETXANO



Mexikoko lehendakaritza eskuratu eta, berehala, hezkuntza-erreforma ezarri zuen Enrique Peña Nietok; herrialdea eraldatzeko iragarritako 11 aldaketen artean lehena izan zen. Bi gako ditu erreformak: irakasleak ebaluatzea, batetik, eta, bestetik, ikastetxeek kudeatzeko autonomia izatea. Hezitzaileak erreformaren aurka agertu dira —*hezkuntza-erreforma* deitu beharrean, *lan-erreforma* deitzen diote—: “Ebaluazioaren helburua irakasleen artean garbiketa egitea delako eta *kudeaketa-autonomiak*, funtsean, *hezkuntzaren doakotasuna* amaitzea eta *pribatizazioa* esan nahi duelako”. Protestan dira irakasleak; atxilotuak, zaurituak eta hildakoak daude.

GAIA: NORK HIL ZUEN CLAUDIO CASTILLO?

MEXIKOKO IRAKASLEAK HEZKUNTZA-ERREFORMAREN AURKA

Claudio Castillo irakasle nekaezina zen. Etikako irakaslea izan zen 40 urtez, eta, eskolak amaitutakoan, hurrei eta emakumeei irakurtzen eta idazten irakasten zien, eta erretiratu ondoren ere eskolak ematen jarraitzen zuen. Oratoria zuen maite. Mexikoko irakaskuntzaren figura bat, hezkuntzaren defendatzaile sutsua zen Claudio Castillo. 2015eko martxoaren 1ean, kalera irten zen Acapulcon (Guerrero estatua) beste behin. Orduko hartan, 12.000 irakasleri zor zitzaizkien soldaten ordaintzea exijitzeko irten zen. 65 urte zituen, eta gaixo zegoen, ibiltzeko herren. Hantxe gelditu zen hilotz. Bertsio ofizialaren arabera, manifestarien autobus batek harrapaturik hil zen Claudio Castillo; haren kideen arabera, Mexikoko Polizia Federalak kolpaturik hil zen. Claudio Castillo hezkuntza publikoa defendatzeko eta pribatizazioa saihesteko irakasleen borrokaren ikur bihurtu da Mexikon, baita Estatuaren indarkeriaren eta kontrainformazioaren erakusle ere.

“Ez da erraza, manifestazioetan kideak hil dituztenean, eskolak ematen jarraitzea. Ez da erraza, baina egiten duzu, borroka egunik egun irabazteko modu bat da eskolak ematen jarraitzea. Ez da erraza, kaleratze-mehatxuak jasotzen ditugularik, eskolak ematen jarraitzea, baina egiten duzu. Hezkuntzaren kontra eta irakasleon kontra gobernuak abiatu duen borroka erakusten du, hain zuzen ere, zeinen garran-

tzitsua den hezkuntza, eta, beraz, irakasleon lana. Gure beharrez sinesten dugulako jarraitzen dugu eskolak ematen, bai eta manifestazioetara irteten ere”. Heber Peñaloza Ramirez-en hitzak dira; Mexikoko Michoacan estatuko irakaslea da, eta hezkuntzako langileen sindikatu ez-ofizialeko kidea. Habanako Pedagogiako Topaketetan elkartu zen Peñaloza *hikhasi* aldizkariarekin. Enrique Peña Nieto Mexikoko Errepublikako presidentea 2012an gobernu eskuratu eta berehala hezkuntza-erreforma ezarri zuen Mexikoko 31 estatutan, eta irakasleak kontra atera dira: “Erreformaren atzean ez dago hezkuntza-irizpiderik —dio Peñalozak—, auzia guztiz ekonomizista da, gastu sozialean murrizketa ikaragarria egin du, eta baita, beraz, hezkuntzaren arloan ere. *Hezkuntza-erreforma* deituriko horren helburua kalitate txarreko hezkuntza eskaintzea da, pentsatzen irakasten ez duen hezkuntza du helburu, enpresariari eskulan kualifikatu eta merkea eskainiko dion hezkuntza-sistema da. Eta irakasleok ez gaude konforme”.

Oposizioan batu diren Mexikoko hezkuntza-sindikatu ez-ofizialen arabera, Enrique Peña Nietoren erreformak ez die Mexikok une honetan hezkuntza-arloan dituen behar eta erronkei erantzuten: “Hezkuntza publikoak osasun eskasa du Mexikon, sinpleki —idatzi zuten *Rebelión* aldizkarian—. Hezkuntza-erreformak ez ditu Mexikoko behar sozialak aintzat hartzen, ez ditu konpontzen, eta ez ditu mahai gai-

GAIA: MEXIKOKO IRAKASLEAK

Hezkuntza-erreformaren aurka

nean ezartzen hezkuntza hobetzeko herrialde horrek dituen zailtasun handienak. Eskolatzeko-maila baxua eta eskola-uzte-maila altuak ditugu, kausa sozioekonomikoen ondorioz, lanera behartuak daudelako haurrak, goseagatik eta miseriagatik, komunitateetan bizi duten indarkeriagatik, haurrek bizi duten errealitatearen eta curriculum-edukiaren artean dagoen distantziagatik, testuliburu-erregulazioagatik eta klasismoagatik, aukera faltagatik eta beste hamaika arrazoiengatik eskolatzeko-maila baxua eta eskola-uzte-maila altua ditugu Mexikon; ikastetxeen azpiegiturak egoera beldurgarria ditugu, urrik eta elektrizitate gabe batzuk, estalperik gabe besteak, landa-eremu batzuetan eskola-biderrik ez dago, irakasleei ematen zaien ordaina miserablea da... horiek dira Mexikoko hezkuntzak dituen erronka nagusiak, eta erreformak ez du horien aipamenik ere egiten. Nola onartuko dugu, bada?”.

Enrique Peña Nietok 2012ko abenduan irabazi zituen errepublikako presidentetza-hauteskundeak, PRI alderdiarekin — oposizioak botoak erosi izana aurpegiratu zion —. 1917an, Mexikoko estatuen konstituzio politikoa eratu zenean, ezarri ziren Peña Nietok erreformatu nahi izan dituen funtsak. Mover a Mexico zuen leloa, eta 11 erreforma handi iragarri zituen; hezkuntza-erreforma izan zen lehena,

abenduan bertan abiatu zuena. Gero etorriko ziren erreforma fiskala, energetikoa, osasungintzakoa.... Peña Nietoren erretorikaren arabera, “erreformek garapena bultzatzea” bilatzen zuten, “ekoizpena sustatzea, eraginkortasuna hobetzea, baliabideak optimizatzea, kalitatea hobetzea eta aukerak sortzea”. Lehen erreforma, bada, 2013ko otsailerako onartu zuten ganberak, eta konstituzioan ezarri ziren aldaketak, 3. eta 73. artikuluetan. “Kongresuan ez da izan batere eztabaidarik, eta, curriculum-aren ukitu gabe, funtsean lan-erreforma bat den hau onartu dute, baina kalean erresistentzia handia izan du, eta ari da izaten”. Grebak egin dituzte irakasleek, manifestazioak ehunga, protestak... Bereziki lau estatutan izan du erresistentzia erreformak: Michoacanen, Oaxacan, Guerreron eta Chiapasen. “Estatu guztiak ari dira borrokan, baina lau estatuok dituzte baldintzak borrokak emaitza onenak ekar ditzan. Lau estatu horietan, hezkuntza-lege berriak auditorium batean onartu behar izan zituzten, legegintza-jauregia inguratua baikeneukan irakasleok eta herritarrek”.

Data hori mugarririk izan zen irakasleentzat Mexikoko hezkuntza-sistemaren endekatzean, baina endekatzearen hasiera askoz lehenagokoa da, Peñalozaren arabera. Lazaro Cardenasen gobernuak 1992an sinaturiko Hezkuntza



Mexikoko irakasleak erreformaren aurka protestan, eta aurrean, poliziak.

GAIA: MEXIKOKO HEZKUNTZA-ERREFORMA

Modernizatzeko Nazio Hitzarmena deiturikoan ezartzen du irakasle sindikalistak “Mexikoko hezkuntza-sistemaren endekatzearen benetako hasiera”. “Hitzarmen horrek hezkuntzaren doakotasuna amaitzea du helburu, eta, sistema okertzeko bidean, aldaketa batzuk ezartzen ditu, nahiz eta ez diren gaur egun bizitzen ari garen aldaketak bezain sakanak”. Gaur arteko bidean, hurrengo urratsa, irakasle sindikalistaren arabera, Felipe Calderonen gobernuak egin zuen, 2008an: “Orduan, Hezkuntzaren Kalitaterako Hitzarmena deitu zioten, baina atzean ez zegoen hezkuntza hobetzeko asmorik”. Hitzarmen hura Calderonen gobernuak eta Mexikoko Oinarritzko Hezkuntzako Irakasleen Sindikatuko ordezkari Esther Gordillo Moralesek sinatu zuten; berori da Mexikoko hezkuntza-sindikatu ofizial bakarra, eta Gordillo ustelkeriagatik espetxeraturata dago gaur egun. “Horrela iritsi gara gaurko egoerara: hezkuntza-sistema suntsitzeko lanetan ari da gobernuak, murrizketen bidez, irakasleak ebaluazio bidez kanporatu nahi dituen lan-erreforma ezarri, eta indarkeria erabiliz. Munduko irakasleek jakin dezatela: hildakoak daude Mexikon, estatuaren polizia irakasleak hil ditu, hezkuntza defendatzen ari ziren irakasleak”.

Irakasleak ebaluatuko dituen erreforma

PRI alderdiaren hezkuntza-erreformaren intsignia irakasleen ebaluazioa izan da; “belaunaldi berriek formazioa eta prestakuntza hobea izan dezaten” irakasleak ebaluatzea izan da Peña Nietoren estrategia. Onura ekonomikoak agindu zituen ebaluazioa gainditzen zuten irakasleentzat, eta, gainditzen

ez zutenentzat, “baliabideak”; “Inork ez du bere lanpostua galduko ebaluazio horrengatik”, adierazi zuen presidentek. Baina ez da hala izan. 2014. urtetik aurrera kontratatu dituzten irakasleak bi urtez behin bi aldiz ebaluatuko ditu gobernuak horretarako sortu duen Irakasleen Zerbitzu Profesionalak. Diagnosi-ebaluazioa eta iraunkortasun-ebaluazioa gainditu beharko dituzte ziklo guztietako irakasleek, bestela kaleratuak izango dira, eta 3 urtetik 6 urtera bitarteko betoa izango dute hezkuntza-sistema publikoan lan egiteko. 2014aren aurretik kontratatuak izan direnak eta finkoak direnak ere hiru urtez behin ebaluatuko izango dira, eta, gainditu ezean, gobernuak kaleratzeko aukera izango du. Kaleratze horrek, sindikatu ez-ofizialen arabera, unean uneko galeraz gain, erretiroan, prestazioetan, gizarte-segurantzian eta pentsioetan ere eragin kaltegarria izango luke. Eta jada izan da kaleratzerik. “Irakasleok ez gara ebaluaziora aurkeztu, % 10era ere ez da iritsi aurkeztu den irakasleen kopurua, garbiketa egiteko erabili nahi du Peña Nietok ebaluazioa, eta ez gara jolas horretan sartuko. Orain, ez aurkezte hutsa lanpostua galtzeko arrazoia izan da urteak lanean zeramatzen maisu-maistra askorentzat”. Langile horiek birkokatzea izan da sindikatu ez-ofizialen egitekoetako bat. Bestea, ebaluazioa benetan zer den eta zertara datorren irakasleei euren eta herritarrei azaltzea.

“Gobernuak informazio okerra zabaltzeko erabiltzen du sindikatu ofiziala, gezurra da ebaluazioa gaindituz gero soldata handiagoa izango dugula”. 305 milioi pesoko aurrekontua 5



miloi peso gutxiagokoa izan da hezkuntzaren azken urtean. Ez da igoyerarik izango, beraz, Peñalozaren arabera: “Gobernuak sindikatua erabili du irakasleen artean nahasmena sortzeko eta tirabirak sustatzeko”.

Ebaluazioaz gain, kezka handia eragin du, baita ere, erreformak proposatzen duen kudeaketa-ereduak. Hezkuntza pribatizatzeak arriskua ikusten dute irakasleek; izan ere, ikastetxeek kudeaketa-autonomia izango lukete erreforma ezarriko balitz, eta horrek, funtsean, sindikatu ez-ofizialen arabera, “gurasoek euren seme-alaben hezkuntzaren gastuen ardua hartzea” esan nahi du. “Hezkuntzak doakoa eta publikoa izateari utziko dio, gaur arte estatuaren ardua zen hezkuntzaren aurrekontuaren ehuneko ehuna, baina erreforma horren arabera, gurasoek lortu beharko dute euren seme-alaben ikastetxeen mantenuaren eta materialen kostua”. Chiapasko adibidea aipatzen dute sindikatuek: “60 pesoko (3 euro) soldata duten laborariek nola ordainduko dute 7-8 kideko familia baten hezkuntza-gastua?”

Odolez zikinduriko erreforma Peña Nieto presidentearena

Egituren –hezkuntza-egiturena– eta informazioaren kontrola izan dira Peña Nietoren borroka-bideetarik bi hezkuntza-erreforma ezartzeko. Hirugarrena, indarkeria.

Sistema egituraz osoki kontrolatzea izan da erreformaren gakoetako bat. Sindikatuak bezala, ikastetxeetako zuzendariak kontrolatzen ditu gobernuak. Ikastetxeko zuzendariak zuzenean kaleratu ditzakete irakasleak, 30 egunen barruan justifikatu gabeko hiru falta izanez gero, adibidez, edo estatuak ezarritako ebaluaziora aurkeztu ezean... “Protestetara edo grebara atera nahi baduzu, lanera faltatu behar duzu, eta, beraz, aski da hiru protestatan parte hartzea zuzendariak kalera zaitzan”. Peñalozaren arabera, ikastetxeetako zuzendariak gobernuarekin daude. “Egitura erabat bertikala da, gobernuak hezkuntza-idazkaritza kontrolatzen du, eta hezkuntza-idazkaritzak departamentuak. Departamentu-tik ateratzen dira saileko buruak, eta horien mende daude ikuskatzaileak, eta horien azpian zuzendariak. Gobernuak kontrolpean dauka egitura guztia”.

Informazioaren kontrola

Eta kontrolpean edo, gutxienez, kide ditu komunikabide nagusiak ere. Televisión Azteca, Televisa eta Milenio telebista kate handiak eta zabalpen handieneko prentsa PRirekin daude. “Mexikoko komunikabide nagusiak oligarkiarenak dira, eta horiek eta enpresari handiek irakasleon izen ona galarazteko kanpaina abiatu dute, borrokara irteategatik

gure lana uzten dugula salatzen dute, eta hezkuntzaren alde ez eta geure interes pertsonalen alde ari garela diote”. Dozenaka artikuluk izenburu bera izan dute hainbat hilabetetan Mexikoko egunkarietan: Ebaluatuak izan nahi ez duten irakasleak; hala deitzen diete erreformaren kontra atera diren milaka eta milaka irakasleri. “Maisu-maistren izen ona zikintzen saiatu dira behin eta berriz, ebaluazioa erabili dute, baina ez dute behin ere ebaluazioaren edukia zer den azaltzeko lerrorik baliatu —deitoratu du Peñalozak—. Are gehiago, erreforma bera zer den edo zertara datorren benetan azaltzeko ere ez dute lerrorik baliatu komunikabide nagusiek, oligarkiarenak eta enpresari handienak baitira hedabideak. Herria, ordea, gurekin dago; herritarrek badakite zein den egoera, nola dauden eskolak, nola dagoen hezkuntza-sistema publikoa. Komunikabideek ospe txarra eman nahi digute, baina kontsentsua gurekin dago”.

Hezkuntza-erreforma ezartzeko hirugarren bidea, esan bezala, indarkeria izan da.

Borroka hau guztia odolez zikinduta dago. “Enrique Peña Nieto presidentetzara iritsi zenean, argi utzi zuen hezkuntza-erreforma izango zela bere gobernu-aldian egingo zuen erreformarik garrantzitsuen, eta bazekien jakin erresistentzia handiena izango zuen erreforma ari zela prestatzen. Mehatxuka abiatu zuen gobernu-aldia, eta aldarte horretan jarraitu du gaur arte; horrek odol asko ekarri du”. Hildakoak daude Mexikon, horietako bat da Claudio Castillo. Irakasle, ikasle eta herritar asko hil ditu erreforma honek. 2014ko irailaren 26an, Guerreroko estatuan desagerrarazi eta eraildako 43 ikasleak ere testuinguru horretan kokatu behar dira, sindikatuen arabera: “Hezkuntza publikoaren aldeko



GAIA: MEXIKOKO HEZKUNTZA-ERREFORMA

borrokan erreformari aurre egiten dion guztiari eskarmentu emateko desagerrarazi zituzten 43 ikasleak. Hori denik eta krimenik handiena da, estatu-terrorismoa”.

Chiapasen, Peñalozaren beste kide bat hil zuten, David Quemallel irakaslea. Bertsio ofizialak eta, oro har, prentsa nagusiak, Quemallel ere manifestarien euren autobusak harrapatu hil zela dio; bestelakoa da, ordea, han zeuden kideen bertsioa: indar polizialek hil zuten David Quemallel ere.

Enfrentamendu gogorra, eta indarkeria handiena, Nochixtlanen (Oaxaca) izan zen, ekainaren 19an: 13 hildako, ehundik gora zauritu eta beste horrenbeste atxilotu. CNTE Hezkuntzako Langileen Koordinadora Nazionalako irakasleek Oaxaca-Puebla bitarteko autobidea itxita zuten zazpi egunez, protesta moduan. Poliziak armen, frankotiratzaileen eta helikopteroetatik botatako gasen bidez sakabanatu zituen irakasleak; erreformaren aurkako protestak “terrorismo-delitu” dira Mexikon gaur-gaurkoz. “Protesta hura mugarri bat izan zen gure aldeko borrokan; herria guregana irauli zen, laguntza osoa eman zigun, babes, janaria... Herritarrak irakasleen protestara batu ziren osoki, eta halako dimentsio handia hartu zuen mugimenduak non zaila egin baitzitzagun artikulatzea”.

Irakasleen eta intelektualen ordez, enpresari handiak daude erreformaren atzean, sindikatu ez-ofizialen arabera; hauxe

idatzi zuten Rebelión aldizkarian: “Munduan ezartzen ari diren hezkuntza-erreforma neoliberalen antzera, kalitate eskaseko hezkuntza du helburu aldaketa honek ere. Ikasleak mendeen hartu nahi dira, etorkizuneko eskulan esplotatua dira ikasleak, eta, helburu hori lortzeko, irakasleak mendeen hartetik hasi behar da. Ez da egiteko erraza, irakasleen kolektiboa Mexikoko talde intumisoenetako bat baita. Belaunikatu aurretik bizitza galtzeko prest agertu dira irakasleak, hezkuntzaren defendatzaileak dira, eta esandako horiek ez dira hitz hutsak, ikusi ahal izan dugunez. Eta ikusi ahal izan dugu, era berean, Peña Nietoren gobernu irakasleak hiltzeko prest dagoela, eta baita bere bidean jarri diren herritarrak ere, estudianteak, normalistak, kazetariak, ekintzaileak, sindikalistak, lider indigenak, giza eskubideen defendatzaileak, oposizioko erakundeetako militanteak, feminizidioak eta ingurumenaren suntsiketa salatu dutenak... Subjektu horiek guztiak desagerrarazi dira, desberdineriaren gorakada eta herrialdearen suntsiketa ezkutatzeko antzezten ari diren ikuskizuna etetera atera direlako”. Irakasleentzat, garrantzitsua da nazioarteko testuinguruan kokatzea Mexikon gertatzen ari dena. “Lanaren mundumailako banaketa neokolonialak baztertu egin du Mexiko, eta lehengai eta eskulana ekoizten jarri du. Europan, AEBn edo Ekialde Urrunean pentsatu eta sorturiko produktuak ekoizteko herrialde bilakatu da Mexiko, eskulan erabat tekniko eta teknologikoa eta azpi-intelektuala lehenesten dute Mexikoko enpresa handiek, eta, beraz, horretara bideratu nahi dute hezkuntza publikoa, eskulan kualifikatua,



GAIA:

MEXIKOKO IRAKASLEAK

Hezkuntza-erreformaren aurka

eraginkorra, produktiboa, esanekoa, merkea, akritikoa eta buruarina heztera”.

Laborariak, irakasleak, langileak... erreformen aurka Egiturazko 11 erreformetan aurrenekoa izan zen Peña Nieto hezkuntzan egin zuena, baina, irakasleen arabera, estuki lotuta dago energia-alorrean egin zuen erreformarekin: “Ekonomikoki, erreforma energetikoa izan da 11 aldaketen artean garrantzitsuena: gure Barne Produktu Gordinaren % 40 petrolioan oinarritzen da, eta alor horretan egin diren pribatizazioek asko murriztu dituzte diru-sarrera publikoak; horrek zuzenean murrizketa ekarri du alor sozialera eta hezkuntzara. Funtsean, hori dago: gobernuak diru gutxiago daukanez, non egingo du lehen murrizketa? Osasungintzan eta hezkuntzan”.

Energiaren alorrean egin dituen aldaketek gasolinaren garestitzea eta energia elektrikoaren igoera ekarri dute. “Horrek oso gogor erasan du jendearen patrika; beraz, uste dugu jende gehiagok hartuko duela kontzientzia”. Hainbat alorretan borrokan ari diren herritarrak batzea da irakasleen nahia: “Nahigabe handia dago herritarrongan, irakasleoi, ikasleoi, familiei, laborariei, indigenei... herritar guztioi eragiten digute erreforma hauek, eta guztion nahigabe hori artikulatzen asmatu behar dugu orain”. Irakasleen borroka ez da protestetara mugatzen: beste kolektiboekin batera urte

bukaerarako gobernu-programa bat aurkeztea da irakasleen proposamena. Mexikoko intelektualekin batera, 2018ko gobernu-hauteskundeetarako programa bat prestatzen ari dira irakasleak, Peñalozak jakinarazi duenez: “Ez daukagu alderdirik, ez dugu inor babestuko, independenteak gara, baina agintea hartzen duenari gobernatzeko proiektu bat eskainiko diogu, herriaren benetako beharrei erantzungo dien proiektu politiko bat idazten ari baikara”.

Irakasleak, gaur gaurkoz, legearen bidean, bide politikoan eta bide pedagogikoan ari dira borrokatzen. “Nazio guztiari begirako hezkuntza-eredu bat landu du alor pedagogikoak. Iazko azaroan eta abenduan, hiru foro nazional handi egin ziren, eta herrialdeko klase intelektuala batu zen han; izan ere, klase intelektuala eta pedagogiaren idazleak dira irakasleon beharren erredaktoreak; alor juridikoari dagokionez, ostera, Konstituzioaren erreformari herri-ekimeneko lege-proiektuak aurkeztu dizkiogu, 3. eta 73. artikulua lehengora itzultzeko, eta, horrez gain, nazioarteko gortetara joko dugu, nazioarteko behatzaileak Mexikon gertatzen ari denaz jabetu daitezten. Bide politikoari dagokionez, protestan jarraituko dugu, egia ezagutu dadin. Eskolak ematen jarraituko dugu, hezkuntzak kritikoa izan behar duela pentsatzen baitugu eta herritarrek pentsatzen ikasi behar baitute, eta, horretarako, tresnak ematea da irakasleon egitekoa. Kontentziturik gaude”.



hik hasi-rekin elkartu ziren irakasle mexikarrak, ezkerretik bigarrena, Heber Peñaloza.



UDA KO TOPAKETAK

hh
hik hasi

Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Uztailak 3, 4 eta 5, DONOSTIA - Uztailak 6 eta 7, LEIOA

- Ikastaro hauetan emari liteke izena oraindik: 1. Hainbat esku-hartze PIKLER-LOCZY pedagogiaren ikuspegitik - 3. Ikasleak erakarri EUSKARAZ egin nahi izan dezaten 4. Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia - 6. HOWARD GARDNER: Adimen Anizkenerik ikaskuntzan duten garrantzia - 8. Jendaurrean hitz egiteko teknikak 9. Aho bete amets: haur literaturaren abuzko baliabide (0-6 urte) - 11. Garapen pertsonala irakasleentzat - 13. Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak - 17. Entrenamendu Mentala eta ametsak aztertuz, zorientatuz - 19. Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna 21. Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan - 22. Espresio talerra - 24. Psikometritzitatea: Gerputzetik sinbolizatzeko gaitasunetara - 27. Haurren autoestimua - 29. Musikaren baliabide tekniko eta espresiboak - 30. Donamartiriko ARBEROA ikastola: Komunikazio Ez-Bartitza esperimentatzen - 36. Motibatu nahi? - 37. Gorputz adierazpena



“Euren burua hezitzaile gisa ikusten duten irakasleak behar ditugu, eta ez euren burua irakasgai bateko espezialista bezala hautematen dutenak”

ELKARRIZKETA: FEDERICO MALPICA

HEZKUNTZA BERRIKUNTZAN ADITUA

Heziketa zientzietan doktorea da Malpica, eta irakaskuntzaren kalitaterako Scalae institutuaren kofundatzailea eta zuzendaria; baita gogoetazko praktikalako nazioarteko plataformaren talde bultzatzaileko kidea ere. Heziketaren eta irakasle prestakuntzaren kalitatean, berrikuntzan eta profesionalizazioan aditua da. Irakasle, ikertzaile eta aholkulari lanetan aritzen da munduko hainbat herrialdetako erakunde publiko nahiz pribatuekin, unibertsitate

nahiz hezkuntza ministerioekin. Ikastolen Elkarteak gonbidatuta Euskal Herrian izan da Pedagogia 3.0. Berritu, eraldatzeko jardunaldien baitan “Gelan eta ikastolan eraldaketa emateko giltzarriak” izeneko hitzaldia eskaintzen. Ikastetxeetan berrikuntza-prozesuak egiteko bi baldintza bete behar direla dio: batetik, prozesu horiek kolektiboak izatea; eta bestetik, ikaslearen garapen osoan pentsatuta egotea.

Azken aldi behin eta berriz entzuten da hezkuntzaren arloan berritu beharra dagoela, irakasteko modua zaharkituta geratu dela. Zuk ere bat egiten duzu aldarri horrekin. Zergatik?

Hasteko eta behin, kontuan izan beharrekoa da eskolari eskatzen zaiona aldatu egin dela. Gaur egun ez da lehen bezala ulertzen ikasleak “maila ona” edukitzea. Guk ikasi genuen garaian, segur aski, “maila ona” edukitzeak zenbait eduki ikastea esan nahi zuen, nota onak ateratzea, unibertsitatera iristeko gai izatea... Baina gaur egun badakigu, ikasleak lan mundura ateratzen direnean, gure garaiarekin alderatuta, bestelako jakintza, trebezia eta konpetentzia batzuk beharko dituztela. Lan motak eta lan egiteko erak aldatu egin dira. Are gehiago: gaur egun esaten da gure ikasleek izango dituzten zenbait lan uneotan existitu ere ez direla egiten.

Horrekin batera, asko ari da aldatzen ikasleek eskolan, nahiz eskolatik kanpo, ikasten dutena ere. Orain dela gutxira arte ia dena irakaslearengandik ikasten zen, ezagutzaren iturria bera zen, hark esaten zigun nolakoa zen errealitatea eta nola gertatzen ziren gauzak. Orain, hori guztia izugarri aldatu da. Gure ikasleek guk baino askoz ere informazio gehiago izan dezakete eta zenbait gairi buruz guk baino gehiago jakin. Horrexe-gatik, gaur egun garrantzitsuena ez da ikasle batek zer dakien, baizik eta dakien horrekin zertarako gai den, alegia, zer egin dezakeen ezagutza horrekin. Zentzu horretan, edukietatik konpetentziarako bidea ari gara egiten hezkuntzaren munduan.

Eta azkenik, asko ari da aldatzen elkarrekin harremanak edukitzeko daukagun modua ere. Baina hori ere ez da eskolako kontua soilik, gizarte osoarena baizik. Internetek, mugikorrek eta gizarte sareek berebiziko garrantzia izan dute horretan guztian. Beraz, esango nuke kontua ez dela horrenbeste irakasleok gure lanbidean zein aldaketa egin behar ditugun aztertzea, baizik eta onartzea gure lanbidea asko ari dela aldatzen, eta beraz, irakasleok guztiz berrasmatu beharra daukagula gure jarduna

eta heziketarako testuinguru berriak sortu beharrean gaudela.

Finean, eskolak gure aurreko belaunaldiak garatzen joan diren hori transmititzeaz gain, gizartea eraldatzeko gai izan behar luke. Horrek analisisia eta talde lana eskatzen ditu. Eskolak ezin du erabat gizarteko oldeen kontra joan, baina ezta haren mendeko izan ere. Oreak bat bilatu behar da. Eta gizartearekin batera oso kontuan edukitzekoa da familiek betetzen duten funtzioa ere. Mundu mailan eskolarik eraginkorrenak izatea lortu dutenek hiru sistemaren engranajea ondo egin dutelako izan da: eskola, etxea eta gizartea. Hiru engranaje horiek modu koordinatuan funtzionatzea da gakoa. Noski, horren guztiaren atzean proiektu bat egon behar da, eta proiektu horrek kolektiboa izan behar du. Eta kolektibotasun horretan familiek eta gizarteak ere parte hartu behar dute, ezin dute eskolek modu isolatuan funtzionatu.

Irakaskuntza berritu ez ezik, berrasmatu egin behar dela diozu. Baina, zer da berrikuntza hezkuntzan? Eta nola berritzen da?

Hezkuntzan berrikuntza txertatzeak esfortzu bat eskatzen du, izan ere, gaur egun dauden tendentzia eta heziketa-ildo guztiekin korronte ezberdinen artean galtzeko edo kontziente izan gabe eramaten uzteko arriskua daukagu. Nire ustez, hezkuntzako berrikuntzaren gakoa irakasleengan dago, egunero klasea ematen dugunok egiteko gai garen horretan, hain justu.

Gaur egun bogan dago azpiegiturak aldatzea, espazioak modu berritzailean diseinatzea, Ipad-ak erabiltzen hastea, paretak botatzea... Hori guztia nahiko modu errazean egin daiteke, baina horrek denak berrikuntza dakar? Ekar dezake edo ez. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan modu jasangarrian eragitea zaila da. Beldurra ditugulako, ados jartzea kosta egiten zaigulako, administrazioak hainbat muga jar ditzakeelako, familia mota anitzekin kudeatu behar dugulako... hori guztia egia da, baina argi izan behar dugu konponbidea guregan dagoela, irakasleengan, eta

beraz, gure esku dagoela zailtasun horiek gainditzea ere.

Hala ere, ezin dugu ahaztu eskola eta hezkuntza komunitatea oso sistema konplexua dela gu horko parte garena, eta beraz, hor gertatzen den guztiak eragiten digula: bitartekoez, gelan gertatzen denak, komunikabideek eta sare sozialek, familiek, instituzioek, inguruko ekonomiak, ideologiek, telebistan bota duten azken iragarkiak, Youtuben sekulako biralitatea lortu duen bideo horrek... horrek guzti horrek gela barruan eragiten du. Eta hori gure lanbidearen ezaugarri bilakatu da: alegia, hezkuntza sistema oso konplexua bihurtu da.

Baina konplexutasun horretan guztian bada interesgarria den ezaugarri bat ere, argi printza bat eman behar ligukena eta norabide bat markatzen lagundu. Izan ere, zer da kontrolatu dezakegun gauza bakarra? Kontrolatu dezakegun zein ikasle izango ditugun? Zer irakatsi nahi dugun eta zer ez? Gure irakasle kideak aukera ditzakegu? Zuzendaria? Eta eskola komunitatea kontrola dezakegu? Eta gizartea? Ez, horrelako ezer ezin dugu kontrolatu, hori ez dago gure esku. Beraz, zer da kontrolatu dezakegun gauza bakarra? Guk geuk egiten duguna, alegia, gure eguneroko jarduna eta praktika.

Baina irakasle batek berak bakarrik gutxi egin ahalko du, ezta? Izan ere, ikasle batek hamaika irakasle pasa ohi ditu derrigorrezko hezkuntzan zehar, eta gainera, hain determinantea izan behar al luke ikasle bakoitzari zein irakasle tokatzen zaion? Ikerketek erakutsi dute irakaslearen gela barruko jardunak zerikusi zuzena duela ikaslearen emaitzetan, baina ez naiz ari irakasle soil baten jardunaz, baizik eta irakasle guztion artean, bere formazioa amaitzen duenera arte, ikasle batekin egiteko gai garen horretaz. Taldeko lan horretan dago gure indargunea, eta hezkuntzaren transformaziorako gakoa. Baina indargune hori kolektiboa da.

Aipatu ditudan ikerketa horietan ikusi zuten hainbat ikaslerengan eragin handiagoa izan zutela ikaskuntza-prozesuan zehar edukitako irakasleek



“Hezkuntzako berrikuntzaren gakoa irakasleongan dago, egunero klasea ematen dugunok egiteko gai garen horretan, hain justu”

“Ikasle baten inguruneko baldintzak direnak direlarik ere, eskola hasten duenetik amaitzen duenera arte guk berarekin egiten dugunak bizitza alda diezaioke”

“Ikasgelak ezin dira izan espazio itxiak, baizik eta eremu irekiak izan behar dute, zeinetan batak bestearekin praktikak eta jakintzak parteka ditzakegun”

haien inguruneko bestelako bizi-baldintzek baino (etxea, auzunea, lagunak...). Eta ideia hori oso kon-tuan izan behar dugu, esan nahi baitu ikasle baten inguruneko baldintzak direnak direlarik ere, eskola hasten duenetik amaitzen duenera arte guk berarekin egiten dugunak bizitza alda diezaiokoela. Baina esan dudan moduan, ez da irakasle batek haiekin zer egiten duen, baizik eta guztiok, egunero, zer egiten dugun bere formazio osoan zehar. Zenbat urte ematen dituzte ikasleek gurekin? 13-15? Pentsa zenbat egin dezakegun... beti ere, eta hitz hau gakoa da, kon-sistentzia –trinkotasuna, sendotasuna, iraunkortasuna...– baldin badago heziketa-prozesu osoan zehar.

Beraz, irakaslearen formazioa eta hark dakarren jakintza pedagogikoa gakoa izango da ikasleak ondo pres-tatzeko?

Irakasleok dakargun motxila peda-gogikoak sekulako zerikusia dauka klaseak emateko daukagun moduan. Esan dezakegu irakasle orok motxila bat daramagula gelara eta motxi-la hartan daramatzagun baliabide didaktikoekin ematen dugula klasea. Irakurri ditugun liburuez gaindi, egin ditugun ikastaroez gaindi, parte hartu dugun kongresuetan ikasitakoaz gain-di, irakasle gisa egiten dakigunean oinarrituz irakasten dugu. Baina, nola eskuratu ditugu erreminta didaktiko horiek guztiak? Nola eskuratu dugu praktika, esperientzia, formazioa? Adibidez, klasera sartu eta eskola

eman genuen lehen egunean nola egin genuen gogoratzen dugu? Egun hartan zer generaman motxilan? Ilu-sioa, gogoa... hori bai, baina zer ge-hiago? Hain zuzen ere, urteetan zehar ikusi eta bizi izandako guztia; alegia, ikasle izan garen denbora horretan guztian zehar esperimendatutakoa. Irakasleok, beste profesional gehie-nek ez bezala, gure lanbidera iristen garenean gure praktika profesionala behatzen milaka ordu igaroak gara. Eta zer gertatzen da? Bada, normal-ki, bizi izan dugun hori errepikatzen dugula.

Adibide bat jarriko dut: demagun bizitza osoan nire herrian balsa dant-zatzen ikusi dudala jendea. Ni plaza-ra dantzara ateratzen naizen egunean, zer aterako zait? Balsa, ezta? hori baita nik bizitza osoan ikusi dudana. Baina imajinatu egun batean herrira “iluminatu” bat etortzen dela, eta esaten duela balsa joan den men-deko dantzaera dela eta orain egin beharrekoa, puntan dagoen dantza mota, zumba dela. Nik, ordea, zumba dantzatzen ez daukat ideiarik ere. Eta esaten didate: “Lasai ikastaro batera eramango zaitugu eta ikasiko duzu”. Zumba ikastarora joaten naiz, han ni bezala joandako ikasle gehiagorekin elkartzten naiz, eta sekulako esplika-zioak ematen dizkigu irakasleak zumba-ren inguruan. Eta are gehiag: ikastaroaren bukaeran zumba-ren erakustaldi bat ere egiten digu. Formazioa amaitzen da, oso gustura ateratzen gara, herriko jaiak iristen dira, plazara ateratzen naiz, eta zein



da lehenengo ateratzen zaidan dantza? Betikoa, ezta? Bizitza osoan egin dudana eta ni dantzari gisa definitzen nauena, ezta? Alegia, balsa.

Gauza berbera gertatzen zaigu irakaskuntzaren arloan ere. Gure motxilan baliabide berriak sartzen joateko ikastaroetara joan ohi gara, baina jakin badakigu gutariko oso gutxi direla gai ikastaro batean ikasitakoa gero gelan txertatzen hasteko. Beraz, zer gehiago egin dezakegu? Nik benetan zumba dantzatu nahiko banu, zer egin beharko nuke? Plazara irten eta dantza hori egin, alegia, praktikatuz. Eta, lehen urratsak egiten lagun diezadaken norbaitekin bada, hobe. Beraz, gauza berbera egin dezakegu irakasle formazioaren kasuan ere.

Irakasleak elkartu, bata bestearengandik ikasi, ikasitakoa bestearen laguntzaz praktikan jarri, eta egingadakoaren gainean hausnartu... hori litzateke bidea?

Badakigu norabidea hori izan daitenkeela, baina gure kasuan, benetan ba al dakigu gure lankideek euren motxiletan zer daramaten? Akaso, baten batek kafe orduan kontatuko digu berak klasean hau edo beste

egiten duela... beharbada besteren batekin proiekturen batean hartu dugu parte... baina hori horrela bada, nola ezartzen ditugu berrikuntza-prozesuak gure zentroetan? Nire ustez, gakoetako bat zera da: jada, XXI. mendean, ikasgelak ezin dira izan espazio itxiak, baizik eta eremu irekiak izan behar dute, zeinetan batak bestearekin praktikak eta jakintzak parteka ditzakegun. Eta norberak bere motxilan dakarrena ere besteekin partekatu behar du irakasle komunitate horretan.

Irakasle formaziori dagokionez, teoria asko baina praktika gutxi dagoela esango zenuke?

Bai, dudarik gabe. Maine Bethel-en piramideak adierazten den moduan, segun eta zein estimulu mota jaso dituen pertsona batek, iritsi zaion horretatik gehiago edo gutxiago barneratu dezake. Adibidez, hitzaldi batean jasotzen denetik, % 5 barneratzen da; irakurketa batetik % 10; ikus-entzunezkoetatik % 20; erakustaldietatik % 30; eztabaida taldeetatik % 50; praktiketatik % 75; eta beste batzuei irakastetik % 80. Kontua da irakasleek egiten duten formaziorik

gehiena, asko joka, eztabaida-taldeetara iristen dela, baina ez gehiagorik. Beraz, ikerketek erakusten duten moduan, gerta liteke irakasleek jasotzen duten formazio guztitik soilik % 10-15 bilakatzea lan-tresna. Horrek esan nahi du urtean formazioan inbertitzen diren errekurtsu guztietatik % 85 inguru alperrik galtzen direla, formazioa ulertzeko daukagun moduagatik. Baina, ikastaro bati ezin diogu gehiagorik eskatu. Bere funtzioa dauka, baina hor entzundakoa praktikara eraman nahi izanez gero, haratago joan behar genuke. Formazioa gakoa da, baina gaur egun gertatzen dena da formazio teoriko asko dagoela, baina formazio praktikoko gutxi geletan.

Hainbat irakasle esperientzia eta proiektu interesgarriak egin ohi dituzte, berritzaileak.

Bai, hori egia da. Baina anekdota hutsean geratzen dira horietako asko, eta ez dira zentro batean berrikuntza izatera iristen. Berrikuntza litzateke forma berritzaile horiek irakasle guztion artean ikasgela denetan txertatzea.

Eta hori lortzeko zer egin dezakegu?

Benetako feedback-a beharko genuke egiten ari garen praktikaren gainean. Eta horretatik oso gutxi daukagu. Oso kuriozoso da: egun osoan jendez inguraturik gaude, baina gure lanbideak lanbide isolatuenetariko bat izaten jarraitzen du. Bakarrik aritzen gara, eta oso gutxitan egon ohi gara beste irakasle batekin klasean. Ez gaude etengabeko feedback-ean, beste lanbide gehienetan gertatu ohi den moduan. Guk bakartuta jarraitzen dugu. Eta irakasleon formazioa hobetu nahi badugu, hori konpondu beharra daukagu.

Eta ez naiz ari esaten ezagutza beharrezkoa ez dugunik gure praktika profesionala hobetzeko. Ezagutza ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa. Ezagutzak handitzeko formazio kurtsoak antola ditzakegu, baina formazioa ez da amaitzen ekintza horretan. Han esandakoa ulertze-ko gai izan gaitezke, baina ez gero hori gure gelan txertatzeko gauza. Formaziorako ez da nahikoa kontzeptuak ulertzea eta ezagutzak metatzea, gaitasunetan ere trebatu behar da. Eta gaitasun horiek eskuratzeko ezinbestekoa da behaketa lehenik, eta gero praktikan jartzen hastea, eta beste norbaiten laguntzarekin bada hobe. Baina hor ere ez da amaitzen kontua. Gerta liteke irakasle bat praktika hori bere gelan txertatzeko gai izatea, baina gogorik ez edukitzea, berak nahi ez izatea eta esatea ez duela egingo. Beraz, ezagutzaz eta gaitasunaz gain, aldeko jarrera bat ere behar da. Alegia, hori egiteko gogoia eduki behar da.

Eta gogo hori, edo nahi izate hori nola lantzen da? Ezinbestekoa da irakasleok egin nahi dugun horretan, edo txertatu nahi dugun berrikuntza horren erabakian eta diseinuan parte hartzea. Zenbat eta parte gehiago hartu, are eta gehiago geureganatzen dugu berrikuntza, eta orduan eta gogo handiagoa izaten dugu aldaketa hori martxan jartzeko. Kontrara, zenbat eta parte gutxiago hartu eta zenbat eta gehiago etorri goitik ezarria, orduan eta gogo txikiagoa izango dugu hori egiteko. Beraz, parte-hartzea ezinbestekoa da, egiteko nahiarekin batera. Baina horrekin ere ez da nahikoa. Eskola guztietan

daude berritzeko nahikoa ezagutza, gaitasun eta gogo duten irakasleak. Irakasle horrek bere gelan txerta dezake berrikuntza, baina anekdota hutsean geratuko da eskolaren sostengu gehiagorik ezean. Hezkuntza-berrikuntza zerbait kolektiboa da, organizazio osoak garatu beharrezkoa. “Berrikuntza” dei dakion guztion artean adostutako eta eraikitako zerbait izan beharko litzateke, metodologia komun bat erabiliz. Ordun bai eman-go geniokeela ikaskuntza-prozesu horri sendotasuna eta trinkotasuna. Kontua da horretara iristeko denbora asko behar dela.

Nondik hasi berrikuntza-prozesu batekin? Eta nola eraman prozesua aurrera?

Lan hori ez dagokigu guri soilik, baita guk parte hartzen dugun organizazioari ere. Izan ere, demostratuta dago organizazio baten egiturak eta gauzak antolatzeke moduak zerikusia duela bertako parte diren pertsonen jarreretan eta jokabideetan. Johnson & Johnson-ek egindako ikerketa baten arabera, organizazio bateko kideek duten jarreraren % 85 baino gehiago zuzenean haren egituraren araberakoa da, eta ez kide horien izaeraren araberakoa. Beraz, profesional gisa gure eskolan nola jokatzen dugun aztertzerakoan kontuan izatea komeni da hein handi batean gure jarrera eskola hori organizatzeko moduaren araberakoa dela. Eta organizazioa diodanean, ordutegi heretsiez, sarrera eta irteera kontrolatuaz, irakasgaikako antolaketaz, gelakako banaketaz, talde-lanerako espazio ezaz... horretaz guztiaz ari naiz. Eta oraintxe bertan gure eskolari begiratzen badiogu ikusiko dugu bere egitura oraindik ere nahiko industriala dela. Horrek guztiak ere zerikusia du gure jokamoldean. Beraz, aldaketa handia etorriko litzateke eskolako egitura bera aldatuko bagenu.

Oraindik ere hainbat eskolaren organizatzeko modua industriala izan daiteke, baina eskola ugaritan metodologia berriak ari dira martxan jartzen.

Gaur egun hiperformatutako mundu batean bizi gara. Gauza guztien

“Irakasleok, beste profesional gehienek ez bezala, gure lanbidera iristen garenean gure praktika profesionala behatzen milaka ordu igaroak gara. Eta zer gertatzen da? Bada, normalki, bizi izan dugun hori errepikatzen dugula”

“Gure motxilan baliabide berriak sartzen joateko ikastaroetara joan ohi gara, baina jakin badakigu gutariko oso gutxi direla gai ikastaro batean ikasitakoa gero gelan txertatzen hasteko”

inguruko informazioa daukagu. Euri jasa bezala, metodologia ugariaren berri izaten dugu egunez egun, eta hain iruditzen zaizkigu liluragarriak, pentsatzen baitugu berehala gure gelan eta zentroan ere ezarri beharko genukeela horrelako zerbait. Adibide bat jarriko dut: irakasle bati eska dakioke egun batetik bestera adimen anitzetan oinarrituta lan egiteko. Berak bere motxilan begiratzen du eta esaten du: “Baina nik ez dut nire bizitza osoan horrelako ezer ikusi; beraz, esplikatu mesedez zer edo zer eta ea gai naizen zerbait egiteko”. Baina ikusten dute horrekin ez dela nahikoa eta arazoetan oinarritutako ikaskuntza ere oso interesgarria dela, eta beraz irakasleari biak uztartzeko eskatzen diote, eta noski, hori guztia teknologia berriekin lotuz egiten badu, bada, hamaika aldiz hobe. Baina hor ez da bukatzen kontua, ezin baita ahaztu oso garrantzitsua dela ondo irakurtzen eta idazten ikastea, eta balioak nahiz heziketa emozionala ere hor daude, albo batera utzi ezin direnak... eta hizkuntzak, eta konpetenziak eta... Horren aurrean irakasleak zera esaten du bere baitarako: “Norbaitek pentsatu ote du niregan?”. Metodologia horietako bakoitzeko beste hainbat jakintza eta gaitasun sartu behar ditu bakoitzak bere motxilan, eta beraz, orotara 50 gauza berri inguru ikas ditzan ari gatzazkio eskatzen irakasleari. Horrek guztiak berrikuntza-prozesuak blokeatu besterik ez ditu egiten. Irakasleok ez garelako robotak eta gauza berriak egiten ikasteak denbora eskatzen duelako. Bestetik, berriz, kontuan izan behar dugu berrikuntza prozesuak txertatzeko irakasleok izan dezakegun motibazioa edo motibazio eza ere. 2013an OCDEk 23 herrialdeetako irakasleekin egindako TALIS izeneko ikerketak erakutsi zuen haien lanean kalitatea hobetzeak ez zuela jasotzen inolako errekonozimendurik. Irakasleen % 75ek esan zuten euren lana hobeto edo okerrago egin, berdin zitzaiola eskolari. Aztertu egin behar genuke irakasleok nola ari garen bizitzen gure lanean eraginkorrak izatea edo ez, eta nola izan daitekeen gure lana errekonozitua ikasleen

nahiz familien aldetik.

Ebaluazioak zein paper jokatu luke testuinguru horretan?

Ebaluazioa hobekuntzarako erabili behar genuke. Eta horixe da gainera irakasleak eta haien lana ebaluatze-ko egon daitekeen arrazoi bakarra: hobetzea. Baina irakasle bat ebaluatzeak soilik zer dagoen ondo eta zer ez esateko, ez du ezertarako balio, baldin eta ez bazaio esaten zer eta nola hobetu dezakeen eta horretarako erremintak jartzen. Beraz, irakaskuntzaz ari garenean, ebaluazio zigortzaile batek ez luke zentzurik. Ebaluazioa soilik era formatzailean ulertzen dut nik, alegia, zerbait ikasteko aukera emango ligukeen balorazio gisa.

Hortaz, zuk nolako formazioa proposatzen duzu?

Historikoki, irakasleon formazioa eskolaz kanpoko zerbait izan da, bai irakasleok kanpora irten garelako prestatzea, edota baita kanpoko norbait etorri zaigulako ere eskolara. Zuzendaritzak hala erabaki duelako, hezkuntzako ministeriotik agindu bat edo beste etorri delako, OCDEko era bateko edo besteko aholkua eman duelako... Horren guztiaren arabera, hainbat formazio plan egin izan dira eta horiek eskolan aplikatu.

Nire proposamena litzateke horri buelta ematea eta formazioa goitik beherako izatetik behetik gorakoa izatera igarotzea. Horrek, noski, irakasleen parte-hartze altua eskatzen du. Formazio mota horri eskolan oinarritutako formazioa deituko genioke, edota ikaskuntzarako irakasle-komunitatea. Formazio horren funtsa litzateke irakasleen prestakuntza ez litzatekeela kanpoan egingo, eskola barruan baizik. Batak bestearekin praktikatu genuke eta batak bestearengandik ikasi. Elkarlanean egindako formazioa litzateke. Formazio mota hori eskolaren beharretara hobekiago egokituko litzateke, helburu izanik gure ikasleek hobeto eta gehiago ikastea. Beraz, ezelango formazioa antolatzen eta egiten hasi aurretik gure buruari funtsezko galdera bat egin beharko genioke: zer nahi dugu benetan gure ikasleek

ikastea?

Ikasleen irteera profila zehatz definitzea proposatzen duzu zuk, alegia, eskola bateko irakasle guztiak ikasleen ikaskuntza-prozesuaren ikuspegi partekatua edukitzea.

Bai hala da. Argi izan behar dugu gure ikasleek eskola amaitzen dutenean zer jakin behar duten, zer-nolakoak izango diren eta zein konpetentzia izango dituzten. Nik defendatzen dudan modeloan guztiok ados jarri behar dugu, eta guztiok norabide berean egin behar dugu arraun. Baina arraunaren norabideak argia izan behar du. Eta eskolan egiten ari garen praktika pedagogikoak ezin du izan orain dela gutxi irakasle bati bururatu zaion zerbait, ezta modan jarri den azken metodologia ere. Ados jarri behar dugu gure eskolan sakratuena denaren inguruan: derri-gorrezko eskola amaitzen dutenean gure ikasleak nolakoak izatea nahi dugu? Galderak oso argia eta samurra dirudi, baina erantzuna ez da hala. Beraz, guztiok argi eta garbi izan behar dugu irakaslearen irteera profesionala zein izango den eta norabide horretan lan egin ikasturte guztietan, gela guztietan, irakasle guztek... Hala, “hauek dira nire ikasleak, hau nire klasea, eta hau nire asinatura” esatetik, “hauek gure ikasleak dira, hauek gure klaseak eta hau gure programa” esatera igaroko ginatke. Izan ere, programa batek ez du zehazten ikasturte batean ikasleak zer egiten duen, baizik irakasle batek gure eskolan sartzen denetik ateratzen denera arte zer egiten duen. Hori da programa, eta ni irakasle gisa, lan-talde horretako kide naiz. Alegia, ni ez nago kontratatuta “matematikako irakasle” gisa, baizik eta lan-talde profesional bateko kide gisa nago kontratatua eta lan-talde hori profil jakin bateko pertsonak ari da eraikitzen. Euren burua hezitzaile gisa ikusten duten irakasleak behar ditugu, eta ez euren burua irakasgai bateko espezialista bezala hautematen dutenak. Lana egiteko modu honek sendotasuna eta iraunkortasuna bermatzen ditu, eta gainera, ez digu uzten oraintxe modu batera, eta gero bestera, moda batetik bestera saltoka lan egi-

ten, baizik eta uneoro geure buruari ondokoa galdetzeraz garrantzitsua: zer esaten dit irteerako profilak? Zein da gure egitekoa? Eta helburua pertsona osoak eraikitzea bada, irakasle batek bakarrik ezin du hori lortu. Horretarako urte asko behar dira, eta gu pertsonaren eraikuntza horretan une bateko bidelagun izango gara, ahaztu gabe profesional-talde handi bateko kide garelara.

Nire ustez, irakaslearen formazioa ikaslearen irteera profilaren zerbitzura egon beharko litzateke. Metodologiak ez direlako helburu bere horretan, baizik eta gure ikaslearen ikaskuntzarako baliabide. Beraz, eskola batek oso argi duenean zein izango den bere ikaslearen irteerako profila, orduan berritu ahalko du, bitartean ez.

Berrikuntzaz hitz egiten dugunean, lehen galdera zera izan ohi da: “Eta, zer egingo dugu gure geletan?”, baina ez luke horrek izan behar galdera, baizik eta hurrengoak: “Zer nahi dugu gure ikasleekin lortu? Zer nahi dugu haiek ikastea?” Hori argi izan arte ezin dugu aurrera egin. Behin argi dugunean zer nahi dugun gure ikasleekin ikasteta, hurrengo galdera zera da: “Eta hori nola ikasten da?” “Zer esaten digu zientziak guk lortu nahi dugun hori eskoletan ikasteko dagoen moduez?”. Okurrentzietan oinarritutako berrikuntzatik ebidentzietan oinarritutako berrikuntzara egin behar dugu jauzi.

Eskoletan behetik gorako berrikuntza sustatzeko zer egin dezakegu?

Lehenik eta behin zentro bateko irakaslearen artean bertako jardunaren gaineko diagnostiko bat egin behar da: zer ari gara egiten? Nola egiten dugu lan? Eta egiten dugun horrekin zein emaitza lortzen ditugu? Zer hobetu nahi dugu? Lehen esan bezala, lehenik eta behin argi izan behar dugu ikaslearen irteera profila: “Honelako ikasleak lortu nahi ditugu”. Eta hori lortzeko, “ni zein ekarpen ari naiz egiten?”.

Beraz, hobetzeko eta berritzeko, zer egin? Lehenik plan bat eduki beharko genuke, gutxienez 10 urterakoa. Baina gero, hemen eta orain egin behar da lan eta ez hemendik 10 urtera.

Ondoren, horren gainean irakaslearen artean lan egiteko modu batetik bestera igarotzeko akordioak egin beharko lirateke eta urrats egingarriak diseinatu. Gakoa da aldaketa txikiak eginez joatea, eta ez egun batetik bestera praktika guztia aldatzea. Eta, noski, klastro guztiaren adostasuna ezinbestekoa da. Nik defendatzen dudan metodo honekin ez ditugu aldaketa handiak lortuko, baina bai hobekuntza txikiak, eta azken finean xedea da irakasteko ohitura kolektiboak garatuz joatea. Lan egiteko modu bat ohitura bilakatzen denean gure gelan era naturalean hori egiteko gai izango garelako, eta horrek esan nahiko duelako lan egiteko modu hori jada gure motxilan txertatuta dagoela.

Berrikuntza txertatzeko bi modu daude: bata da zentro guztia erabat aldatzea, baina horrek errekurtso asko eta energia handia eskatzen du; eta bestea da helbururak 10 urterako markatzea, baina aldaketak urtez urte egiten joatea, pixkanaka baina sendo. Horrek esan nahiko du lauzpabost urtean dezente aldatzea lortuko dugula eta aldaketa kolektiboa denez, irakaslearen batek zentro horretatik alde egiten badu ere ezagutza ez duela berekin eramango, baizik eta ezagutza hori eta lan egiteko modu hori talde osoarena, eskolarena, dela. Eta, gainera, hori guztia idatziz jasota dagoenez, norbait berria datorrenean hari ere erakuts diezaiokegula. Horixe da ikaskuntza kolaboratiboak duen indarra, besteekin eta besteengandik ikasteko aukera ematen duela.

“Ebaluazioa hobekuntzarako erabili behar genuke. Eta horixe da gainera irakasleak eta haien lana ebaluatzeko egon daitekeen arrazoi bakarra: hobetzea”

“Hezkuntza-berrikuntza zerbait kolektiboa da, organizazio osoak garatu beharrekoa. ‘Berrikuntza’ dei dakion guztion artean adostutako eta eraikitako zerbait izan beharko litzateke”



EKARPENAK

DBH-N PROIEKTUEN BIDEZ LANEAN

Erromatik mundura, eta mundutik Andoainera

Erromatar Inperioa abiapuntuz hartuta, proiektuen bidez ari dira lanean Andoaingo Leizaran institutuan, DBHko 3. eta 4. mailetako dibertsifikazio gelako ikasleak, Josune Iñarraren eta Leontxo Valverderen gidaritzapean. Helburu nagusia gazte horien gizarteratzean laguntzea da, eta bizitzaz duten ikuspegia zabaltzea; aldi berean, proiektuen bidez jorratu nahi dituzte curriculumak zehazten dituen xedeak. Zortzi ikasleko talde batean, zientzien arloko tutore da Valverde, eta humanitateen eremukoa da, berriz, Iñarra. Ikasleok haiekin lantzen dituzte irakasgai guztiak, espezifikoak izan ezik. Laugarren ikasturtez ari dira proiektuen bidez lanean. 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan, "Erromatik mundura, eta mundutik Andoainera" izeneko proiektua landu zuten.



Josune Iñarra eta Leontxo Valverde Andoaingo Leizaran eskolako irakasleak

Maketak egin, eskala landu, baratzean lan egin, enpresa bat sortu, kontabilitatea eraman, kozinatu, egurrekin sukaldeko armairuak egin, denetarik egiten dute proiektuen bidez Andoaingo Leizaran institutuko *dibertsifikazio gelako* ikasleak, erreferente diren bi tutore horien laguntzarekin. Leontxo Valverderek, zientzien arloko gaiak lantzen dituzte: teknologia, matema-

tika, naturaren zientziak... Josune Iñarrarekin, berriz, humanitateekin lotutako gaiak lantzen dituzte: euskara, literatura, gizarte-zientziak... Eskolako ordu gehienak bi tutoreekin igarotzen dituzte DBHko 3. eta 4. mailetako zortzi ikasleek, eta horrek parada eman die, gelako harremanak sendoago eraikitzeko ez ezik, edukiak beste era batera antolatzeko ere. Hala dio Valverdek: "Irakasgaietan, beti errepikatzen dira gauzak,



Ikastaldea lanak prestatzen.

matematikakoa fisikan, euskarakoa gaztelanian... Horrela antolatuta, askoz ere probetxu handiagoa ateratzen diegu eskola-orduei. Iruditzen zait eredu horrek primeran funtzionatuko lukeela, ikasle horiekin ez ezik, eskola osokoekin ere”. Hauxe zehaztu du Iñarrak: “Kontuan izan behar dugu ikasle hauek gizarte-egoera zailak bizi izandakoak direla, eta, hasieran, nahiko gatazkatsuak izan ziren gelako harremanak. Baina, denborarekin, talde-lanean ikasiz joan dira, eta hobetu egin dira ikasleen arteko erlazioak nahiz haiek gurekin dituztenak. Hasiera ez zen samurra izan, baina oso pozik gaude orain”.

Laugarren urtez ari dira lanean Leizaranen era horretara, proiektuen bidez. 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan, “Erromatik mundura, eta mundutik Andoainera” izeneko proiektua landu zuten 14 eta 15 urteko hamahiru gazterekin, eta, lortutako emaitzekin pozik daudenez, bide horretan jarraitzen dute lanean. Erromatar Inperioa abiapuntutzat eta Erromarako bidaia jomugatzat hartuta, ekintza-kate bat jarri zuten abian, hainbat eduki, praktika eta balio jorratzeko. Besteak beste, bost arlo hauek zerrendatu dituzte Iñarrak eta Valverdek:

- **Giza eskubideen defentsa:** taldearen

aniztasuna aberastasun gisa ulertzea.

- **Arlo kulturala:** gelan eta gelatik kanpo, kulturak eta hizkuntzak errespetatzen ikastea.

- **Hezkuntzaren arloa:** jakintzagaiak gizartean integratzeko tresna gisa erabiltzea.

- **Ingurumenari dagokion arloa:** baratzea lantzea, konposta egitea eta produktuak ekoiztea.

- **Osasun-arloa:** dieta orekatu bat prestatzen eta ondo elikatzen ikastea. Era berean, hemengo produktuak ezagutzea eta garaian garaiko elikagaiak kontsumitzen ikastea. Erromarako bidaia antolatzea helburu hartuta, bi urtetan zehar garatu dute “Erromatik mundura, eta mundutik Andoainera” proiektua, eta hamaika jarduera egin dituzte denbora horretan:

- **Erromako patrizio-etxe baten maketa egin:** jarduera horrekin abiatu zuten proiektua. Helburua garai bateko gizarteko estamentuetan bizitza nolakoa zen ulertzea zen, eta, horretarako, garai hartako film eta bideoak ikustea, eraikuntza nagusien ezagutzea, erabiltzen zituzten materialei buruzko informazioa

bilatzea... Garai hartako irudietan oinarrituta, maketa bat egiteko diseinua landu zuten lehenik; materialak antolatu zituzten ondoren, eta maketa egin zuten azkenik. Valverdek dioenez, talde-lanean aritu behar izan zuten jarduera horretan, eta negoziatzen ikasi behar izan zuten. Maketa bukatutakoan, Donostiako EHUko Arkitektura Fakultatean eta Leizaran ikastetxeko sarreran erakutsi zuten. Iñarraren hitzetan, sinplea eman badezake ere, askorako ematen du maketa bat egiteak: “Hasieran, pentsatu genuen patrizio-etxe baten gela bat soilik egitea, baina, gustura ari ginenez eta asko ikasten ari ginenez, etxe osoa egitea erabaki genuen. Ikasleek Interneten begiratu behar izan zuten, bai eta entziklopedietan eta liburuetan ere, patrizioen bizimodu nolakoa zen jakiteko. Baina zernolako egiturak erabiltzen zituzten? Zein kolore erabiliko zituzten, eta zein ez? Zer jaten zuten? Sukaldean patatak jarri behar zituzten? Zer kolore jarriko zieten pertsoneri larruzalean? Txorakeriak eman dezakete, baina sekulako zehaztasunetara iristeko aukera eman dezakete horrelako galderek”. Adibidez, ikasle batek maketan busto bat jartzea proposatu zuen Baina zer tamainakoa egin behar zuten? Eskala lantzerantz eramantzen horrek ikasleak, eta, horre-

tarako, matematikako ordua erabili zuten. Izan ere, teorian, astean bi ordu zeuzkaten proiekturako, baina, praktikan, bestelako orduak ere erabili zituzten, proiektuak hainbat arlo lantzeko aukera ematen zenez. “Azken batean, maketa egiteak matematikan neurriak eta eskala lantzeko aukera eman zigun; plastikan, diseinua eta koloreak landu genituen; teknologian, materialak; hizkuntzen arloan, latina, euskara, gaztelania eta, oro har, Europako hizkuntzak; eta abar”, argitu du Iñarrak.

-Maketaren ezaugarriak azaltzeko bideo bat editatzea: Erromako patrizio-etxearen maketa eraiki ostean, bideo bat egin zuten ikasleek maketa horren ezaugarriak ondo islatzeko, eta, bide batez, informazioa tratatzen eta teknologia digitala erabiltzen ikasi zuten. Horretarako, beste maketa batzuen inguruko bideoak ikusi zituzten; zer kamerarekin grabatu erabaki zuten; zer programa erabili eztabaiatu eta adostu zuten, eta hausnarketa egin zuten jendeari erakutsiko ziotenaren gainean. Grabatutako irudiak aukeratu eta bideo-muntaketa egin ostean, ikastetxeko gainerako ikasleen aurrean erakutsi zuten. Hala kontatu du Iñarrak: “Grabazioak sakelakoarekin egitea adostu genuen, eta maketa pertsona baten ikuspegitik erakusteko aukera eman zigun horrek. Sakelakoa maketa barruan sartuz, xehetasun guztiak grabatu genituen, eta oso efektu politak lortu genituen”.

- Ikasketa-bidaia antolatzea: jarduera honen barruan bisitatuko zituzten lekuak hautatu zituzten; aurrekontuak eskatu zituzten, eta dirua lortzeari ekin zioten. Besteak beste, baratzeko produktuak saldu zituzten, bai eta haiekin prestatutako jakiak ere, hala nola marmeladak, tortilla, ogitar-tekoak... — Polboroiak, kamisetak edota zozketa-txartelak ere saldu zituzten.

- Turismo-gida osatzea: Erromarako bidaiaren prestaketari lotuta, Erroma hiriar buruzko turismo-gida bat sortu zuten guztien artean. Banaka edo binaka, Erromako eraikuntza, plaza edo

monumentu bat aukeratu zuten, eta haren gaineko informazioa bilatu, eta euren hitzetan azaldu zuten idatziz; beste gida turistiko batzuen ereduak hartu, eta testu mota horien ezaugarriak aztertu zituzten; argazkiak aukeratu zituzten; hiri baten planoak interpretatzen ikasi zuten; autobus eta metroko geltokien kokapena eta ibilbidea ikertu zuten; italiararen oinarriko hiztegia aukeratu zuten, eta, lan guztiak bildu ondoren, forma eman zioten turismo-gidari. “Azken batean, pertsona edo bikote bakoitzak Erroman bisitatuko genuen zerbait aukeratu zuen, eta horren inguruko deskripzioa egin zuen; hoteletik leku horretara autobusez, trenez edo oinez nola iritsi zitekeen ere zehaztu zuten. Hala, hizkuntzarekin loturiko gaiak ez ezik, ikasleen ardura ere landu nahi izan genuen. Horrela, norbait galduz gero, bazekien nora joan behar zuen, bai eta toki hartara nola heldu ere”, dio Iñarrak. Gainera, Erroman bertan, plazak, eraikuntzak zein monumentuak bisitatzerakoan, ikasleek eman zituzten azalpenak: pertsona edo bikote bakoitzak gidarako landutako informazioa aurkeztu zuen ikaskideen aurrean. Valverdek dio askoz gehiago motibatzen duela norberak landutako zerbait besteen aurrean aurkezteak edota azalpenak ikaskide baten ahotik jasotzeak. “Gainera, gure ikasleek bazekiten nora eta zertara zihoazen. Monumentu baten aurrean, hala esan zuen ikasle batek: ‘2.000 urte dauzka honek? 2.000 urte zutik?’. Ez da gauza bera eduki hori aurretik landuta eramatea edota norbaitek ‘eraikin hau halako urtetan egin zuten’ esatea zuri. Askoz ere zentzu handiago du norberaren baitatik jabetzeak gauzak zer eta nola diren”.

- Bidaiaren egunerokoa egitea: Erroman ikusten, ezagutzen, senti-tzen, bizitzen... ari zirenen gainean, oharrak hartu zituzten ikasleek, eta, han esperimentatutakoan oinarrituta, eguneroko bat osatu behar izan zuten Andoainera itzulitakoan. Xede nagusia bidaiaren bizitakoaren lanketa emozionala egitea izan zen.

- Enpresa kooperatibo bat sortzea:

Proiektuaren hasieratik, enpresa bat sortzea erabaki zuten, kontuan hartuta finantzaketa lortzea dela gaitzena ikasketa-bidaia bat prestatzerako orduan. Enpresa baten organigrama zein den ikasi ahal izan zuten hala, bai eta gastuak eta irabaziak kontrolatzen edota kontabilitatea eramaten ere; matematikako hainbat gaitasun garatu zituzten hala. Enpresaren bitartez, baratzeko ekoizpena, sukaldean eraldatutako produktuak eta bestelako salmenta-kontuak bideratu zituzten. Hasteko, ikasleek baratzera lantzen zuten, garaian garaiko eta hemengo produktuak ezagutzeko, lurra lantzen ikasteko, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak garatzeko, eta, bide batez, hainbat produktu salduta, ikasketa-bidaiarako dirua ateratzeko. Bestetik, baratzeko elikagaiekin nahiz dendan erositako beste batzuekin, zenbait jaki prestatu zituzten: hain zuzen ere, errejeta jakin bat prestatu zuten astero, garaiko produkturen bat oinarri hartuta, eta errejeta horren txostena egin zuten. Eta jaki horietako batzuk saldu ere egin zituzten. Iñarrak dioenez, eguneroko bizitzarako baliagarriak diren ekintzak egiten ikastea zen xedea. Azkenik, bestelako produktuak ere saldu zituzten (kamisetak, bitxiak, zozketa-txartelak...). Eta horren guztiaren kontabilitatea eramaten ikasi zuten. Horretarako guztirako, Leizaran ikastetxean Gizarte Integratioko goi-mailako modulua egiten ari diren ikasleen laguntza izan zuten. Era boluntarioan, enpresa aurrera eramaten lagundu zieten, bai eta gelan sortzen ziren liskarrak bideratzen ere. “Kontuan eduki behar dugu ikasleak hainbat tokitan egon daitezkeela une berean: batzuk baratzean, beste batzuk sukaldean, beste batzuk gelan edota informatikako aretoan... 4-5 boluntariok eman zuten izena guztira, eta bakoitza ikasle talde txiki batekin egoten zen. Adina tarteko, ikasle haiekin gurekin ez bezalako harremana sortzeko balio izan zuen. Gazte haiek gertuko erreferente bilakatu ziren gure ikasleentzat”, dio Valverdek. Baratzearekin nahiz sukaldearekin lotuta, beste hainbat ekintza ere



Irakasleak eta ikasleak Erroman.



egin zituzten ikasleek proiektuaren baitan; hala nola, sukaldeko armairua egin egurrarekin eta hari giltza jarri; eguzki-plakaren bidez udan baratzea ureztatzeko bonbarekin dabilen ur-depositu bat jarri; baratzeko erremin-tak gordetzen dituzten txabolaren teilatua konpondu...

- Kulturartekotasun-jaia antolatzea: ikastetxe osoarekin batera, kulturartekotasun-jaia ospatu zuten. “Kontuan izan behar da gure ikasleen % 25 inguru etorkinen familietakoak direla. 27 naziotako jendea daukagu orotara. Horrexegatik, kanpoko ezagutu ostean, egokia irudi zitzaigun Andoain osatzen duten komunitate guztiek elkar ezagutzea, eta, gastronomia aitzakiatzat hartuta, denok ikastetxearen inguruan elkartzea”. Hala, ikasleen jatorrizko herrialdeetako jakiak jarri zituzten dastagai ikastetxeo areto nagusian, eta hezkuntza-komunitate osoak hartu zuen parte jaialdian. Besteak beste, elkarrekin bizitzen, pertsona gisa garatzen, eta egiten eta ekiten ikastea izan dira jarduerak horrekin landu nahi izan dituzten gaitasun orokorrak.

- Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin “Maite zaitut” abestia hainbat hizkuntzatan grabatzea: kulturartekotasunari lotuta gogoeta bati ekin zioten Leizaranen: “Denok hain desberdinak izanik, zerk lotzen gaitu?” Argi ikusi zuten euskara zela guztiek zuten tresna komuna,

denei balioa ematen ziena. Hala, bururatu zitzaizen “Maite zaitut” abestia euren gelako ikasleen jatorrizko hizkuntzetan grabatzea ideia polita izan zitekeela, eta Porrotxekin harremanetan jarri, eta euren nahia aurrera eramatea lortu zuten. “Garate estudioetan egin genuen grabazioa. Guretzat, festa-egun handi bat izan zen. Sekulako parranda egin genuen ikasle eta irakasleok!”.

Iñarrak eta Valverdek argi dute ezinbestekoa izan dela sareko lana “Erromatik mundura, eta mundutik Andoainera” proiektua garatzeko. Jende askoren laguntza behar izan dutela diote. Eta gorabeherak gorabehera, zailtasunak zailtasun, “erabat asebate” ditu proiektuak. “Dimentsio pedagogiko handiko proiektua izan da. Esan daiteke curriculumeko arlo gehienak ukitu dituela. Proiektu horren bidez, alde aurretik zekizkiten zenbait gauza praktikan jarri ahal izan dituzte ikasleek, eta ez zekizkiten beste hainbat ikasi egin dituzte”. Curriculumak eskatzen duena bete dute, gainera, eta egoki garatu ahal izan dute DBHko 4. mailako programazioa. Ikasleek euren titulua lortzeaz gain, ikasketetan aurrera egiteko bidea ireki dute. *Dibertsifikazio gelako* ikasle horiek gizartean integratzeko eta gizartetik at ez geratzeko egindako ahaleginak ere “izugarritzko oihartzuna” izan duela diote irakasleek, bai ikasleengan, eta baita herriko jendearengan ere. “Garrantzi handia eman genion

hasiera-hasieratik ikasleen autoestimua lantzeari. Euren buruari buruz zeukaten pertzepzioa aldatzea izan zen erronka. Ikasturtean zehar, poz handia eman digu beraien bilakaera ikusteak. Gauza asko egiteko gai direla ikusi dute ikasleek. Prozesua ez da erraza izan. Bakoitzaren gorabeherari, autoestimua faltari, eskolara ez etortzeari eta eguneroko liskarreari aurre egin behar izan diegu. Baina bukaerako emaitza ikusteak erabat estali ditu prozesuan zehar pasatako une txar guztiak”.

PEDAGOGO SORTZAILEAK

FRANCESCO TONUCCI

Pedagogo sortzaileak izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta datorren ikasturtean emango du argitara edizio berritua. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, adituen eta arituen eskutik. Francesco Tonucciren inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan seigarrena.

Esan daiteke Francesco Tonuccik egin duen urrats bakoitza haurren errealtatera gero eta gehiago hurbiltzeko eta haien ikuspegiari balioa emateko izan dela: haurrek eskolan izaten dituzten bizipenak ikertu ditu, bai eta haurren eta helduen munduen artean sortzen diren harreman motak ere; hiri- eta herri-antolamenduan haurrek duten zereginaren azterketa inoiz alboratu gabe. Esparru horietan guztietan haurrek



Txatxilipurdi

Arrasateko euskara eta aisialdiko elkarte

bizi duten bakardade-egoeraz ohartuta, muga geografikoak gainditu ditu Tonuccik, eta haurren beharrak zein diren zabaltzen aritu da munduan zehar, haurrek esaten dutenari kasu egiten badiogu, soluzio handiak aurkituko ditugula azpimarratuz. Funtsean, mundua haurren ikuspegitik aztertzeraz eta eraikitzeraz gonbidatzen gaitu, haurrentzat ona bada, gainerakoentzat ere ona izango delako.

Hainbat ohar biografiko

Francesco Tonucci (1941, Fano, Italia) irakaslea, psikopedagogo eta ikertzailea da; egungo jendarte-antolamenduan haurrak duen –eta izan beharko lukeen– zereginari buruzko hausnarketa egiten duten liburu eta bineta askoren autorea ere bada.

1958an, irakasle-ikasketak amaitu zituen, eta 1963an, Psikopedagogian graduatu zen, Milango Unibertsitate Katolikoan. Gero, Lehen Hezkuntzako irakasle-lanetan aritu zen. 1966an, Ikerketaren Kontseilu Nazionaleko Institutu Psikologikoko ikertzaile bilakatu zen, eta 1982an, institutu horretako Psikopedagogiako Departamentuko buru izendatu zuten.

Tonucciri estuki lotuta garatu da aspalditik “Frato”, 60ko hamarkada amaieran (1968) sortu ondoren haren ordeztu hitz egingo zuen pertsonaia satirikoa.



Francesco Tonucci

Ikerketa-eremutik jasotako ondorioak publiko zabal bati iristeak zuen garrantziaz ohartuta, eta txikitako pasioaz baliatuz (margolaritza), haurrei ahotsa ematen dieten irudi grafikoak eta binetak egiten hasi zen. Horien bitartez, helduek haurrekin dituzten portaera desegokiak eta eskubide-urraketak salatzen hasi zen. Ikaste-txeetara sartzea lortu zuten binetek, umorezko ironiak eta satirak eskolatan ia sarbiderik ez bazuten ere, eta irakasleak eta hezitzaileak prestatzeko tresna bilakatu dira harrezkero.

Urte batzuen buruan, 1991ko maiatzean, *Haurren Hiria* proiektua hasi zen garatzen bere jaioterrian: hiri bat ulertzeko proiektu iraultzaile bat zen.

Proiektu hori ez zen mugatzen hezkuntzaren edota heziketaren eremuetara edo haurrei laguntza ematera. Zalantzan jarri zituen hiri edo herri bat kudeatzeko orduan ohikoak ziren egiturak, eta egiteko modu berri baterantz lan egitea planteatu zuen Tonuccik, non haurrak hiriaren edo herriaren antolamendurako eta ebaluaziorako erreferentziazko subjektu zentralak izango ziren. Beraz, esan daiteke motibazio politiko bat izan zuela egitasmoak hastapenetatik.

Arrakasta itzela izan zuen proiektuak, eta, ordutik, munduko hainbat eta hainbat tokitara hedatu da.

1997an, Italiako Telebistako Adingabeen Batzordeko lehendakari izendatu zuten (haurren babeserako lan egiten duen taldea). Napolesko Zientzia Hiriko haurrentzako lantegietan, kolaboratzaile gisa ere jardundu, eta Erromako Haurren Museoko kolaboratzaile zientifikoa izan da.

2016an, *Honoris Causa* doktore izendatu zuten, Limako Unibertsitate Katolikoko Hezkuntza Zientzien Fakultatean eta Lleidakoko Unibertsitatean.

Besteak beste, liburu hauek argitaratu ditu: *Bambini si nasce*, 1987 (*Niño se nace*), *Con gli occhi del bambino*, 1981 (*Con ojos de niño*), *Bambini si diventa*, 1989 (*Como ser niño*), *La città dei bambini*, 1991 (*Haurren Hiria*), *La soledad del niño*, 1994, *La ricerca come alternativa all'insegnamento*, 1972 (*La escuela como investigación*), *Se i bambini dicono: adesso basta!*, 2002 (*Cuando los niños dicen: ¡basta!*), *FRATO. 40 años con ojos de niño*, 2007.

Oinarri filosofikoak

Pentsalari horren ikuspegia egungo jendartearen askotariko esparruetara estrapola daiteke, ikasgelara nahiz ikasgelatik kanpora. Izan ere, une oro gertatzen den eta amaigabea den prozesua da heziketa.

1.- Haurren eskubideak. “Haurrak eskubideak ditu, eta helduak, eskubide horiekiko betebeharrak”.

Haurren eskubideak babesteko, haurren eskubideei buruzko hitzarmena onartu zuen Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak, 1989ko azaroaren 20an. Hitzarmen horrek eskubidedun subjektu gisa kokatzen du haurra, jendarteari bere ekarpena egiteko eta bere eskubideak defendatzeko gai den pertsona modura, hain zuzen. Partaidetzaren inguruko eskubideetan (12. -17. artikulua) biltzen da ikuspegi hori bereziki; haurra ez da hartzen babestu beharreko subjektutzat soilik, subjektu sozializat ere hartzen da.

Haurrek duten adinagatik eta beraien eskubideak defendatzeko izan ditzaketan zailtasunengatik, haurren eskubideak bazterrean uzteko edo horiek urratzeko arrisku handiagoa

dagoela uste du Tonuccik. Hori dela-eta, haurren eskubideei buruzko hitzarmenean oinarrituta, haurrak eskubidedun subjektuak direla gogorazten digu, eta helduen betebeharra dela eskubide horiek babestea. Beraz, helduek, erakundeek eta agintariek haurrekin lotutako erabakiak hartzen dituztenean, haurrentzat onena denari lehentasuna emanez jokatu behar dute (3. artikuluan zehazten da hori), eta, era berean, pentsatzen dutena esateko espazioak edo guneak izan behar dituzte haurrek, haiei eragiten dieten askotariko gaiei buruz informatuak izateaz gain.

2.- Haurtzaroaren kultura. “Haurra ez da orri zuri bat, hezkuntzaren bitartez eta orrian idatziz jakintza bereganatzen duena. Justu kontrakoa da egia”.

Egun, haurtzaroaren kontzeptua oker erabiltzen dela salatzen du Tonuccik. Haurtzaroa zer den eta haurren beharrak zein diren helduok gure mundu-ikuskerara propiotik erabakitzen dugula dio, eta, ondorioz, ahalmen- eta botere-ukapen bat gertatzen dela azpimarratzen du.

Haurrek mundua ikusteko eta gauzei zentzua emateko euren modua dute, eta halaxe frogatu zuten duela mende bat pentsalariek; euren modu etiko, estetiko eta poetikoa dute errealitatea ulertzeko. Gai dira euren bizitzari eta existentziari zentzua ematen dioten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitzeak. Horregatik dio Tonuccik edozein esku-hartze hezitzaile, ezinbestean, haurra entzuetik abiatu behar dela, gero, haurrari egokitutako tresna eta esperientzia esanguratsuak eskaini ahal izateko.

3.- Jolas librea, haurraren garpenerako giltzarria. “Haurraren betebeharra jolastea da”.

Haurrak jolasean helduarentzat oso ezohikoa den esperientzia bizi izaten duela dio Tonuccik. Jolasaren bitartez, munduaren konplexutasunari aurre egin diezaioke haurrak bere kabuz; jolasak munduaren aurrean kokatzen du haurra, bere jakin-min etengabearekin, dakien guztiarekin eta egiten dakien guztiarekin, ez dakien guztiarekin eta jakin nahi duen

guztiarekin. Jolastea, beraz, esperientziak bizitzea da. Ikerketa hutsa da jolasa.

Baina Tonucci psikopedagogoak dio esfortzu ebolutibo hau bi baldintza gertatzen badira soilik izango dela posible: jolastean asebeste-sentsazioa sortzen bada, eta jolaserako ingurune egokia badago. Haurra asebeteko da, plazera ematen badio (dudarik gabe, eragile boteretsua da hori pertsona ororentzat), eta ingurune bat egokia izango da, aurrez aipatutako erronka horiek guztiak bere kabuz edo bere lagunekin bizitzeko aukera eskaintzen badio haurrari. Hala bada, jolasean bizitakoak ohorez eta satisfazioz kontatuko dizkio helduari (gurasoei, familiakide bati, tutoreari), eta, autonomiak, konfiantzak, onespentak eta ongi sentitzeak sortutako giro horretan, magia gertatuko da: haurra hazi eta hezi egingo da. Jolastea, beraz, ez da edonola ere denbora “ezer egin gabe” pasatzea. Jolastea gauza serioa da, Francesco Tonucciren iritziz.

4.- Haurren autonomia. “Badakit zaila dela, beldurra dagoela. Baina ez dago beste erremediorik”.

Adituak dio haurrek badakitela euren autonomia galtzen ari direla helduen beldurraren erruz; normalean segurtasun ezaren aurka proposatzen den irtenbidea defentsa delako (denbora librea antolatzea, jolasa kontrolatzea, asperdura-uneak ekiditea, ustez seguruak diren espazioetan pilotzea, helduen zaintzapean egotea, bakarrik ez ibiltzea).

Arriskua, ikuspegi guztietatik hartuta, garapenaren funtsezko osagaia dela dio Tonuccik, modu horretara bizi baitituzte haurrek –eta ez horren haurrek– esperientzia indartsu, esanguratsu eta garrantzitsuak. Gainera, haurrak arriskua plazeratik bilatzen duela dio, eta ez oinazea sentitzeagatik.

Haurrei beldurragatik gutxieneko autonomia ukatzeak ondorio dramatikoak ekar ditzake etorkizunean. Desiren pilaketa eragiten du umeak une oro eta egunero kontrolpean edukitzeak. Horrek arauak urratzeko gogoia areagotzen duela dio, eta behar horrek, lehenago edo beranduago, eztanda egin dezakeela. Edota

autonomia faltak jolasaren benetako onurez baliatzea ekidin dezakeela nabarmentzen du, “jolastu” aditza ez baita “lagundu” aditzarekin jokutzen, “utzi” aditzarekin baizik. Horregatik guztiagatik, garrantzia handia dute autonomiaren eta mugitzeko askatasunaren aldeko apustuek haren proiektuetan.

5.- Espazio seguruak. “Kalea arriskutsua da, haurrik ez dagoelako bertan”.

Hiri-antolamendua ez da ausazkoa. Hiri-antolamendu batek bizitzeko estilo-, ideologia- eta ekonomia-eredu jakin bat indartzen du. Azken Mundu Gerra eta gero hiriak berreraiki zirenean –batez ere European–, hiriek berezkoa zuten ezaugarri bat galdu zuten: elkarretartzeko eta trukerako gune izatea. Ordura arte elkargunera bideratuta zeuden espazio publikoek (plazak, patioak, espaloiak, kaleak), poliki-poliki, saltokiei eta autoei begirako funtzioak hartu zituzten, herritarrei beraien espazio publikoa kenduz. Hori horrela, aldatu egin da gune seguruen kontzeptzioa: Kalea ez da gune segurua jada, eta, are gutxiago, bakarrik doan haur batentzat.

Tonuccik dio, haurrak –arreta behar duten hiritarrak edo pertsona zaurgarriak– kalean ez badaude, ez dela loratzen haiekiko erantzukidetasunik gainerako herritarren aldetik. Alegia, ez dela bizikidetzaren aldeko apusturik edo esku-hartzerik egiteko beharrik ikusten.

Errealitate hori oztopo handi bat da espazio seguruen eraikuntzan; izan ere, herrikideez arduratuko ez den herria herri arriskutsua izango da berez. Tonuccik haurra ezartzen du kaleen segurtasunaren bermetzat, eta horregatik ematen dio horrenbesteko garrantzia haurrek kaleak berreskuratzeari. Haurrak kalean badaude, praktikan jarriko da hiritartasuna, eta, horren ondorioz, guztiontzako seguruagoak izango dira kaleak.

6.- Haurra erdigunean. “Haurrentzat egokia den jendarte-eredu batean, guztiok sartuko ginateke”.

Francesco Tonucciren lantaldeak egungo gizartea helduzentrista eta androzentrista dela ikusi du, jendarte-

antolamenduari buruz egindako ikerketetan. “Heldua, gizona, langilea” dira, hurrenez-hurren, jendarte-antolamendurako eta berorren ebaluaziorako erreferentziatzko elementu nagusiak. Ikuspegi horretatik hartzen dira erabaki garrantzitsuak eta publikoak, eta harreman asimetrikoak sortzen ditu horrek, gizon helduak eta langileak ez diren beste hiritarrekiko (haien beharrak ez dira entzuten, eta, ondorioz, ez dira asetzen). Haatik, egungo ereduak zaurgarritasun-egoeran kokatzen ditu haurrak, bai eta beste kolektibo batzuk ere: nagusiak, aniztasun funtzionala dutenak, emakumeak, etab.

Beraz, espazioak irekitzera gonbidatzen gaitu pentsalariak. Errealitateari haurren begiradatik behatzera gonbidatzen gaitu, urrats sendoa egingo dugulako horrela, denontzat izango den hiri edo herri justuago bat eraikitzeko bidean.

7.- Mugikortasuna. “Ez gara gu izango espaloitik jaitsiko garenak”.

Tonuccik dio, jendarte demokratiko bat baldin bagara, ezinbestekoa dela guztiok barnean bilduko gaituzten politikak egitea. Eta hori nola egiten den? Erabaki oro zaurgarrienak direnen beharretatik abiatuta hartuz, eta ez alderantziz, babestuen dauden herritarren ikuspegiaren arabera, alegia. Mugikortasun-plan urbanistikoak egiteko orduan, formula bera erabiltzea proposatzen du; lehenik, oinezkoaren beharrak kontuan hartzea; gero, bizikletazalearenak; ondoren, garraio publikoarenak, eta, azkenik, garraio pribatuarenak.

Oinarri filosofikoak gauzatzen egin duen bidea

Hiria irakurtzeko irizpideak aldatzea proposatzen du Tonuccik. Soluzio pribatuetatik harago, soluzio soziala planteatzen du, eta, horrek, ezinbestean, herritar guztiak bilduko dituzten prozesu parte-hartzaileak egitea dakar. Prozesu parte-hartzaile horietan haurrek ere ahotsa eduki behar dutela dio, eta hori da, hain zuzen, *Haurren Hiriarekin* bultzatu nahi izan duena.

Haurren ahotsa entzuteko, Haurren Kontseilua sortu zen Fanon. Kon-

teilu horren funtzioa Haurren Hiria deritzon laborategiarentzat aholkularitzako gune bilakatzea da. Helburua, berriz, haurrei entzunez helduen kultura aldatzea da, horrela, hiriak eraldatu ahal izateko. Haurrez osatutako bilkura horretan, hiriarri buruzko kezka eta proposamenak lantzen eta jasotzen dira bidelagun batek dinamizatuta (jolasguneei buruz, zirkulazio-arazoei buruz, oztopo arkitektonikoei buruz, gune seguruei buruz, osasunerbitzuei buruz, etab.), eta, ondoren, haurrak hiriaren erdigunean jarri nahi dituen erreferentziatzko gunera, laborategira, eramaten dira.

Pentsalariak badaki hiri bat haurren begiradatik eraikitzeak zeharkako lana eskatzen duela, eta, beraz, Administrazioa –alkatea eta zinegotziak–, hainbat elkartetako ordezkariak eta gai horretan interesatuta dauden herritarrak biltzen dira laborategian (betiere, hiria haurren begietatik ikusteko prest badaude); Haurren Kontseiluak emango dizkion aholkuak aintzat hartzeko konpromisoa hartuko du laborategi horrek.

Tonuccik planifikazio partekatua deritzon proposamena ere jarri du abian Fanon. Haurren Kontseiluaren antzeko funtzionamendua du horrek, baina, kasu honetan, ez dauka halako kutsu politikorik. Administrazioaren aldetik jasotako eskaera konkretu bati erantzun operatibo bat emateko lantalde bat abian jartzean datza (espazio bat planifikatzeko, ibilbide bat planifikatzeko etab.). Proposamenaren diseinua eta planifikazioa gauzatu ondoren, disolbatu egingo litzateke lantaldea.

Munduko hainbat eta hainbat txokotara eraman dira planteamendu horiek guztiak. Tokian tokiko errealitatera egokitu dira, eta askotariko formak hartu dituzte.

Gaur egun duen eragina

Hiriek haurrei bizkarra ematen dielako kontu hori ez da gaur egungoa. Jada 40ko hamarkadan, Lewis Mumford arkitektoak “Hiriak haurrekin ahaztu dira” artikulua idatzi zuen. Artikuluan, kalearen erabilera soziala aldarrikatu zuen, eta hiri modernoak espazioen eta belaunaldien arteko bereizketa ekarri izana kritikatu zuen.

Gaur egun, Francesco Tonucci dugu hiri-eredu horrek haurrari nola eragiten dion aztertu eta hiriak berriro bizileku, topaleku eta jolasleku izan daitezten lanean diharduena. Berorren proposamenak Europako hainbat hiritan, Hego Amerikan eta Euskal Herrian zehar gauzatzen ari dira.

Haurren Hiria nazioarteko sarea sortu da; eskolarako bideak non-nahi aktibatu dira; La Platan, Bizikletaren Laborategia –diziplinarteko planteamendu pedagogikoa– gauzatu da; herri hezitzailearen izenean, “haurren lagunak sarea” sortu da hainbat tokitan, eta, uneren batean haur batek laguntza beharko balu, itsasgarri batekin bisualki identifikatuta dauden tabernetara edo dendetara jo ahal izango luke laguntza eske (komunera joan beharra daukalako, egarri delako edota galduta dagoelako). Hiri batzuetan, zigor sinbolikoak jartzen hasi dira haurrak, autoek oinezkoen espazioak okupatzen dituztelako.

Euskal Herrian bereziki asko hausnartu den eta praktikan jarri den kontua da herri hezitzailearena, eta, Tonucciren ideiak oinarri hartuta, hainbat proiektu interesgarri daude abian gaur egun. Oinherri federazioak “Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra” jardunaldiak antolatu ditu, eta liburuxkak argitaratu ditu gaiaren inguruan. Lanean dihardu, gainera, Euskal Herriko hainbat herritako eragileekin, elkarlanean proiektu hezitzaileak sustatzeko. Solasgune ere *Haurren Hiria Sarea* hedatzen ari da Euskal Herrian. Eta, poliki-poliki, oinarri horiek abiapuntu hartuta, zenbatezinak diren neurri eta izaera askotako proiektuak ugaritzen ari dira Euskal Herrian.

Bibliografia

Gaian sakontzeko gomendagarria:

- Tonucci, F.: *Haurren hiria* Txaxilipurdi Elkarte. 2. Argitaraldia. Arrasate, 2015.
- Tonucci, F.: *Cuando los niños dicen ¡Basta!* Fund. German Sanchez RUIPEREZ. Madril, 2002.
- Tonucci, F. (2013) eta beste batzuk. *Herri Hezitzailea Eskola Herritarra*. Hik Hasi, 27. Monografikoa.
- <http://www.lacittadeibambini.org>

GALDEIDAZU

ZER EGIN DEZAKEGU AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN LANTZEKO?

Artikulu honen izenburu bera jarri genion 2016ko EHUko XXXV Uda Ikastaroetarako Soziolinguistika Klusterrak aurkeztu zuen lantegiari. 2015ean egin zen “Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak” ikastaroaren jarraipen praktikoa izateko desiraz osatu zen proposamena, eta izen eman zuen jende kopuru handiagatik eman genuen lantegi bera bi aldiz. Olatz Bengoetxea eta Josune Zabala gidari, eta hirurogehi inguru irakasle elkarrekin jakintza eta jardura ezberdinak partekatuz. Gaiak izan duen eskari handiari erantzuteko, aurtengoan ere lantegi bera emango dugu udako ikastaroetan. Lantegi haietan aurkeztutakoa jaso genuen BAT 101 alean, eta hemen jaso dugu artikulu artako laburpena.

Zer topa lezake, bada, irakurleak artikulu honetan? Gogoeta zein praktikarako proposamenak ondoko hiru ideien gainean:

1. Hizkuntza normalkuntzaren ikuspegitik, ahozko hizkuntza eskolan lantzeko abiapuntua.
2. Eskolan, ahozko hizkuntzaren ezagutza eta erabilerari lotutako proposamenak.
3. Ahozko hizkuntza (edozein ikasgaitan) lantzeko oinarriak.



JOSUNE ZABALA ALBERDI Ahozko kulturarako Mintzola Fundazioaren zuzendaria



1. Gure testuinguru soziolinguistikoa eta ahozko hizkuntzaren lanketaren arteko lotura. Diagnostikoa egin eta ikastetxean erabakiak hartzeko oinarritzko adierazleak

Soziolinguistikaren alorrak garrantzia du edozein hizkuntzaren errealitateaz mintzo garenean; are gehiago, hizkuntza gutxitu bateko ahozkoaren irakaskuntzan sakondu nahi dugunontzat. Izan ere, ez baita berdin etxetik euskaldun diren ikasleen ahozko hizkuntzaren didaktikan murgiltzea edo euskara eskolan bakarrik jaso duten ikasleekin aritzea. Ezberdin beharko luke, halaber, hizkuntza hegemonikodun (gurean, gaztelania edo frantsesa) ahozkoaren irakaskuntzaz edo hizkuntza gutxitu baten ahozkoaren didaktikaz hitz egitea. Elkarren antzeko ezaugarriak izanda ere, elkar ezberdintzen gaituzten aldagaiak ere badira, ziurrenez, erabakiorrak hizkuntzaren didaktikan sakondu nahi dugunontzat.

Soziolinguistikaren zorutik abiatzeak lagundu ahal digu ahozkoaren didaktika egokitzen gure errealitate ezberdin bakoitzera, eta horrek ondorio ugari ditu eremu askotan: curriculum helburuetan, hizkuntza proiektuarekiko erabaketan, irakasleen lan egiteko moduetan eta abar.

Hala, gure esku hartzeari ekiteko abiapuntua izan ohi da hizkuntzaren

didaktika uztartzea herriko nahiz eskolako baldintza soziolinguistikoekin. Norbere baldintza soziolinguistikotik hasi eta bestena ulertzeko ariketa da lehenik proposatzen duguna. Hiru testuinguru soziolinguistiko ezberdinetako eskola-ikasle ezaugarriak definitzen ditugu (testuinguru oso euskalduna; erdibideko testuingurua eta testuinguru erdalduna), eta gure egoera zeinetara gerturatzen den ohartzeko ariketa egiten da lehenik. Zein da nire egoera? Eta zer esango nuke gehiago edo aldatuko nuke definizio horretatik?

Norberaren egoeraren ezaugarrietan sakontzen da bakarka eta ezaugarri bereko irakasleak jartzen dira elkarrekin ideiak osatzeko. Bertatik ateratzen diren ideia baikor eta ezkorrak partekatu eta idatziz jasotzen dira talde handian adierazteko. Talde handian eraikitzen den iritzi-truke ezberdinen emaitza bezala jasotzen dira ideia ezberdinak zehazteko zein diren egoera bakoitzaren aukerak eta mugak ahozko hizkuntzaren irakaskuntzari begira. Ondorengo erabakiak hartzen dira egoera bakoitzean:

2. Egitetik lantzeraz: pizgarri batzuk egiten dugunaz jabetzeko

Hauxe da hurrengo urratsa. Egiten dugunari begira jartzeko ariketa labur bat, galdera honetan sakontzeko proposamen bat: Irakasle, ahozkoarekin zabilzanean, bereziki, non daukazu fokua jarrita?

Hizketan jartzeko aukerak eraikitzen dituzu (mintzapraktika deitzen diogu)? ala aukerak jartzeaz gain, horretarako baldintzak sortu, helburuak jarri, lanketarako denbora bat erabili eta praktikan jartzen dituzu (mintzapraktika jabetua deitzen diogu)? Aste osoan zehar egiten ari diren artelana gauzatu bitartean “egin euskaraz” esaten diezu? ala egoera horietan euskaraz egiteko behar dituzten tresnak ematen dizkiezu eta komunikazio erronkak proposatu nahiz ebaluatu? Euren gustuko ipuina kontatzen dute astean behin ala ipuina kontatzen irakasten diezu ereduak ikusi eta aztertuz, ariketa ezberdinak eginez, praktika saio ezberdinak eginez eta ebaluatuz...? Zure ikasgaiaren ahozko azalpenak eginarazi eta ebaluatzen dituzu ala ahozko azalpenak nola

Norberaren egoeraren ezaugarrietan sakontzen da bakarka eta ezaugarri bereko irakasleak jartzen dira elkarrekin ideiak osatzeko.

elkarrekintza eta ahozko praktika gehienek mintzapraktikaren ezaugarriak dituzte. Ahozko praktikak EGITEN dira, baina LANDU gabe. Eta gehienetan, kosta egiten zaio irakasleari ohartzea ikasleak hizketan jartzen dituela, baina jardun hori aurrez planifikatu eta unean landu nahiz ebaluatu gabe.

Mintzapraktika eta praktika jabetua, biak gauzatuko dira eskola guztietan, nahiz eta oso ezberdin. Testuinguru erdalduneko egoeran abiatzen den ikasleak beharko du gehiago praktika jabetutik denbora luzez, eta pixkana eskainiko zaizkio mintzapraktikarako dosi txikiak. Erdibideko testuinguruko ikasleak bietarik beharko ditu hasiera-hasieratik. Eta ingurune oso euskalduneko ikasle batek, berriz, beharko ditu mintzapraktikarako aukerak bereziki testuinguru informal eta hurbiletan, eta praktika jabetutik testu genero berrietarako, testuinguru formalagoetan edo erregistro berrien lanketan (hitanoa, adibidez).

Egoera bakoitzerako erabakiak

AHOZKOTASUNA	Gure egoera
Eskolako hizkuntza proiektuan kontuan hartzekoak	
Hizkuntza irakasleen helburuak ikasleekiko	
Galnerako irakasleen helburuak ikasleekiko	
Hizkuntzaren irakaskuntza: metodologia, didaktika	
Besterik	

Egoera horiek ondo zehaztea da ikastaro honen egiteko nagusietako bat eta horien definizioan igarotzen da denbora handia. Horrelaxe jartzen ditugu lehen oinarriak. Ikastaroan zehar behin eta berriz jotzen dugu, edozer delarik ere lanketa, abiapuntu honetara uste baitugu ahozkoaren irakaskuntzan hemendik abiatzeko laguntzen duela, besteak beste, lortu ezinak diren helburuak alboratzen, lorgarriak direnak erdigunean jartzen, eta euskara irakaslearen arduratik haragoko planteamendu osoago bat eraikitzen.

ematen diren irakasteko denbora hartzen duzu, ikasleen gaitasunen arabera azalpenak emateko aukera ezberdinak eman eta ebaluatzen duzu? Zure ikasle guzti-guztiekin egin behar dute “zerbait ahoz jendaurrean” ala zure ikasleen gaitasun eta jendaurrerako emozioen kudeaketa kontuan hartzen dituzu proposamenak egiteko garaian?

Zure saioetan zein leku du mintzapraktikak eta zein mintzapraktika jabetuak? Horiek eta galdera gehiago egiten ditugu gai honi lotuta, lantegian.

Izan ere, oraindik orain, zoritxarez, gure ikastetxeetan sortzen diren

3. Ahozko hizkuntza lantzeko egoerak

Gure formazio eta ikerketetan askotan ohartu gara ahozko komunikazioaren gaineko lanketak, oraindik, idatzizko lepotik egiten direla askotan. Idatzizko ezaugarriak dituzten ahozko ekoizpenak lortzen dira eskolatan (elementu paraberbalik gabeko berbaldiak, buruz ikasitako aurkezpen monotonoak, errepikapen edo makulurik gabekoak...), eta askotan uste izaten da ikaslearen gaitasun eza izan ohi dela gakoa, ez irakaslearen esku hartzeko modua.

Jabetze lan hori egiteko ariketa bat egiten dugu ahozkoaren eta idatziaren arteko ezberdintasun nagusiak zein diren ikusteko. Hartzen dugu testu mota


GALDEIDAZU: AHOZKO KOMUNIKAZIOA

erreal bana ahozkorako eta idatzizko-rako sortua izan dena. Adibidez, eguraldi iragarpena. Ahozko eta idatzizko testuak talde handian aztertzen ditugu gure laguntzarekin.

Ahozko testuen azterketa egiteak laguntzen du argitzen ikasleekin testu hori lantzeko garaian berariaz zeri eman behar diogun garrantzia eta zeri ez. Ipuina lantzen ari garela garrantzia izango du, adibidez, kontaktetan txertatuko diren onomatopeiak lantzea konexio baliabide gisara; errezeta bat lantzeko garaian, berriz, ez da bereziki hori izango garrantzitsua. Testu bakoitzaren ezaugarriez jabetzeak lagunduko digu ikusten zer den ikasleekin landu beharko genukeena.

Ahozko eta idatzizkoaren gaineko azterketak eginak, ahozkotasuna lantzeko egoerak aurkezten ditugu. Galdera honetatik abiatzen gara: Irakasle naizen neurrian ahozko hizkuntzan murgiltzeko zein aukera izan ditzaket? Hiru egoera zehazten ditugu gure formazioetan, eskema honetan jasota:

Ahozko hizkuntza lantzeko egoerak



Eta zein da egoera bakoitzaren izaera? Ondorengo ataletan aurkeztuko dugu bakoitza, labur.

3.1. Egoera gidatuak: ahozko genero berezituak, errutinak eta sekuentzia didaktikoak

Egoera gidatuak sortzen ditugu berariaz helburu komunikatibo bat erdies-teko testu mota bat lantzen dugunean: jendaurreko azalpena, ipuin kontaketa, debatea, eguraldi iragarpena... eta gisakoak ekoiztea izan ohi da azken xedea. Denbora jakin bat ematen zaio helburu hori lortzeko prozedurak lantzeari: genero berezitu jakin bat lantzen da, errutinak eraikitzen dira edo material didaktikoa diseinatzen da

(Sekuentzia Didaktikoa).

Ikastetxeko mapa egiten denean planifikatzen dira egoera gidatu hauek, eta hiru unetan bereizten ditugu guk:

3. Sekuentzia Didaktikoak (SD): testu generoak berariaz lantzeko sortutako metodologia jakin bat da Sekuentzia Didaktikoa (Dolz & Sch-



Ahozko hizkuntza LANGAIA denean, hiru une proposatzen ditugu ahozko hizkuntza lantzeko:

1. Ahozko genero berezituak: hizkuntzaren alderdi ludikoa bereziki nagusitzen zaien generoak dira. Buruz ikasi eta errezitatzen dira askotan banaka edo taldean. Edozein momentutan, hizkuntzarekin jolas egiteko aukera ematen dute, erritmo eta doinu jakin bat izan ohi dute, eta nola ez, hizkuntza horren forma zuzen eta aberatsak ikasteko aukera paregabea emateaz gain, hiztun komunitatearen mundu eta bizi ikuskera baten berri ere ematen dute.

2. Errutinak: egunero errepikatzen diren egoerak ere bihur litezke gure irakaste objektu. Eskolako sarrera-irteerak; saioen hasiera eta amaierak; eguraldiari edo gure gertaera jakinei egiten zaizkien erreferentziak... Ikastetxean hamaika aldiz errepikatzen zaizkigun egoerak dira errutinak, eta horiek bihur genitzake irakaste objektu, baldin eta horretarako diseinu bat egiten badugu.

newly 1997), ahozko eta idatzizko testuen dimentsioak modu antolatu eta sistematikoan irakasteko garatu dena. Esan liteke, gaur gaurkoz, hizkuntzen didaktikarako ditugun tresnetan garrantzikoena dela: ikasleen behar komunikatiboetara egokitua; ikaslearen ebaluazio formatiboa ahalbidetzen dute (hasiera eta bukaera); identifikatutako zailtasunak lantzen dira modulutan antolatuta; moduluetan komunikazioaren alderdia zein hizkuntzaren alderdia lantzeko jarduerak edo ariketak egin daitezke; eta malgua da.

Hiru egoera hauetako bakoitzaren adibideak aztertzeko material didaktikoa eta ikasleen ikus-entzunezkoak aurkezten ditugu, denbora baten esploratu, zalantzak argitu eta ideia askotarikoak elkarrekin partekatzeko.

3.2. Egoera autonomoak: ahozkoaren aldagai jakin bat lantzerako bideratutako jarduerak eta jolasak

Egoera autonomoak eraikitzen direnean, zehazki gure interesa piztu

duten hizkuntza forma eta portaerak behatu, analizatu eta haiez jabetzeko jarduerak egiten dira. Ikasle batek hitz ezezagun baten gainean egin duen galdera izan daiteke praktika autonomoa egiteko aitzakia paregabea, adibidez. Ikus-entzunezko baten harira entzun dugun elkarriketa erakargarria, olerki bat buruz ikasi eta errezipatzea edo testu-liburuan dagoen paragrafo ulergaitza ere, berdin-berdin.

Praktika mota hauetan egiten da hizkuntza portaera jakin bat behatu, analizatu eta hura erabiltzeko tes-tuinguru jakin batzuk sortu. Hasiera eta bukaera jakin bat izan ohi dute egoera hauek (arratsalde bat, goizaren zati bat, saioaren une zehatz bat...). Praktika autonomoak txerta litezke egoera gidatueterako sortu diren jardueretan ere (ariketa edo jolas jakinak izan daitezke edo izan daitezke espontaneoagoak, galdera edo zalantza baten harira sortuak).

Egoera hauetako proposamen batzuk praktikan jartzeko ginkana bat eraikitzen dugu lantegian, partaideek irudika dezaten zertaz mintzo garen egoera autonomoz dihardugunean.

3.3. Egoera askeak: edozein elkarrekintzatan sortutako egoerak kudeatzeko praktika onak

Egoera askeak sortzen dira eskolako edozein unetan gauzatzen diren elkarrekintzetan. Irakaslearen azalpenak, ikasleen galderak, iritzi emate eta justifikazioak, hipotesien aurkezpenak, zalantzak, deskribapenak, kontaketak... denetarik sortzen da elkarrekintza horietan. Irakasle eta ikasleak, ikasleak euren artean edo bakarka ari direnean sortzen diren elkarriketez dihardugu.

Irakasleak ahozko hizkuntza balia dezake gelako eta gelaz kanpoko gertaerak kudeatzeko (curriculumari lotutako edukiak izan daitezke edo bestelakoak ere bai). Egin dezake lan hori kontzienteki zer egin eta esaten duen jabe dela, edo besterik gabe, egiten ari denaren kontzientziarik gabe. Egoera horietan diogu ahozko hizkuntza bihurtzen dela irakaskuntza BITARTEKOA. Eta ez zehazki hizkuntza irakaslearen ardura, baizik edozein irakasle eta hezitzailearen erantzukizuna. Hezitzaileok hizkun-


tza normalkuntzan dugun arduratik begiratuta.

Matematiketan, adibidez, hizkuntza erabiltzen ari garenean jarri zaigun egoeraren aurrean hipotesiak eraikitzen ditugu, gure iritziak ematen ari gara, eragiketa nola bideratu dugun azaltzen dugu edo buruketaren ebazpena deskribatu. Berdin beste edozein ikasgaitan. Elkarrekintza horietan hizkuntza presente dago edozein joan-

bakarka lan horretan murgiltzeko, eta tartea eskaintzen dugu talde handian partekatuzko.

Bukaera-bukaeran, ikastaroari buruz esan nahi den hori adierazteko eskatzen diegu eta horman gelditu diren mezu eder guztien artean, hemen berpiztu nahi izan ditugu batzuk, artikulua honi ere bere agurra eman eta gurekin ikastaro ezberdinetan izan zaretan guzti-guztiori eskerrak itzultzeko:

Agurrak



etorritan. Egoera horiek aprobe-txa genitzake hizkuntza ikaskuntza eta erabileraren mesedetan, edo besterik gabe, garrantzirik eman ez.

Abiapuntu horretatik, BERBEKIN programaren (Bergara, 2014-2017) harira definitu ditugun elkarrekintzarako hiru tipologien ezaugarritzea eta azterketa egiten da (estilo tradizionala, Laisser faire estiloa eta estilo demokratikoa). Irakasle bakoitzak egiten du bere lan egiteko modua identifikatzeko ariketa, eta bakoitzak bere abiapuntutik ahozko komunikazioaren eta elkarrekintza eraikitzailearen mesedetan egin nahi dituen aurrerapausoak zein izan litezkeen zehazten da.

4. Atzera, aurrera

Azken jarduera da, hain zuzen, atzera aurrera egin eta bidean jasotakoak ordenatzeko proposamen bat. Ikastaroan jardunean hasi aurretik banatzen dugu LAN KOADERNOA, saioetako jarduerak egin, ideia nagusiak jaso eta gai bakoitzari lotutako bibliografia izateko. Azken tarte honetan proposatzen dugu formazioaren amaierarako idatziz jasota dituztenak berriz irakurtzea, jaso gabekoak idaztea, zalantzak argitzea, proposamen berriak egitea... Tartea hartzen dugu

6. Bibliografia

- Prestakuntza hau osatzeko baliatu dira, besteak beste, honako iturriak:
- <http://armiarma.eus/> (genero berezitu-tuen lanketak)
 - Biain (1996). Murgiletarako irakasle-eginkizuna komunikazio elkarrekintzetan. *Jakingarriak*, 32: 46-53.
 - Ruiz Bikandi, U. (2010). Ahozko hizkuntza irakastea. Ruiz Bikandi (apailatzailea). Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan, 179-206. Bilbo: EHU-UPV argitalpen zerbitzua.
 - Sainz Osinaga, M. (koord.), Azpeitia, A., Garro, E. eta Sagasta, P. (2011). Sekuentzia Didaktikoak: ezaugarriak eta adibide zenbait. In, *Nola artikulatu jakintza-arloa eta hizkuntza? Zenbait lanabes eskolan erabiltzeko*, 53-64. Andoain: Euskarenen Gizarte Erakundearen Kontseilua.
 - Tribuaren Berbak (TB): <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/tribuaren-bloga/>
 - Zabala, J. (2013). Ahozko hizkuntza derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Esku hartzea eta ikaslearen garapena Tolosako esperientzian, *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 87-88, (2-3):127-148.

NUR eta

Herensugearen Tenplua



**Zinemetan
lehen aldiz!**
ekainaren 2tik aurrera

ZUZENDAKIA: Juanita Bermejo; GIDOKIA: Tol Martinz & Leticia / Etxe Olasagasti; IRUDIKAZIA: Joana Sempere
ANIMAZIO ZUZENDAKIA: Inaki Zamora; ARGAZKI ZUZENDAKIA: Eduardo Gomez; STORY BOARD: Jose Angel Lopez




BARTON ILLS



etb



ARGITALPENAK



SUMENDIAK

Pascale Hedelin / Julie Mercier / Sandrine Thommen

TTARTTALO

Kapela txinatarraren, ezkuaren edo mahaiaren forma izan dezake sumendi batek, baina, kasu guztietan, erupzioak ikusgarriak eta arrakatsuak dira. Aberastasun asko eskaintzen dizkigute: berotasuna, harribitxiak, lur emankorra eta ikuskizun paregabea. Orain, bulkanologo izan zaitezke!



IXON

Ana Jaka Garcia / Alex Orbe Ferreiro

ELKAR

Ion du benetako izena, baina Ixon deitzen diote beti isilik egoten delako, halako batean, hitz egitea ere ahaztu duen arte. Etxetik joango da orduan, eta abentura harrigarriak ezagutuko ditu gero, basoan topatzen dituen rock musikari batzuen eskutik. Alex Orbe ilustratu du Ana Jakak 8 eta 10 urte bitarteko haurrentzako idatzirko liburua.



PIZZA

Egilea: Raphaël Fejtő Itzultzailea: Miren Agur Meabe

ELKAR

Koipetsua nahiz kurruskatsua, urdaiazpikoarekin nahiz txanpinoiekin, jatetxean nahiz etxean, zahar eta gaztek jaten dute mundu osoan! Baina nola asmatu zuen... pizza?! Bilduma atsegin eta irakargarria da honako hau asmakizun txikien ezagutzeko.



BASOKO LIBURU HANDIA

Mack

TTARTTALO

Basoan barrena zoazela, zuhaitzak ikusiko dituzu, edonon. Zuhaitzak, zuhaitzak eta are zuhaitz gehiago. Baina, basoko zuhaitz guztiak berdinak al dira? Eta ba al dago basoan hazten den beste landaririk? Basoko liburu eder honetan zuhaitz hostoerokorreko zein konifero basoak, baso tropikalak eta beste hainbat eta hainbat baso aurkituko dituzu.



NUR ETA IRLANDAKO BIDAIA

Toti Martinez de Lezea

EREIN

Suzhou-ko alde zaharrea dabilta Nur eta bere lagun Liang, Ayana, Dmitri eta Hao Lin. Hiri horretan bizi dira. Bostak sartu dira denda batean, denda magikoa dela esan du Ayanak. Han ezagutu dute Yan-Yan andrea, eta jadezko untxi bat oparitu dio Nurri. Toti Martinez de Lezearen pertsonaia kutunak eta bere lagunak Irlandara egingo dute txangoa oraingo honetan.



HELDUAREN AKONPAINMENDUA HAURRAREN GARAPENEAN

EMMI PIKLERREN IDEIAK

PIKLER-LÓCZY EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

Haurrari akonpainatzeko helduaren eginkizunaz hausnartzea eskatzen du, helburua ez baita besterik gabe estimuluak aplikatzea, baizik eta haurren ingurunean dauden pertsonen eragina antolatzea. Liburu honek Emmi Piklerrek gaiaz egin zituen apunte garrantzitsu batzuk biltzen ditu.

PROPOSAMENA

'ORTZADAR GARA' UNITATE DIDAKTIKOAK


Aniztasun sexualari leku egiten

Eskoletan aniztasun sexuala lantzeko unitate didaktikoa argitaratu du Steilaisek

Homofobiak ikastetxeetan lekurik izan ez dezan, prebentzioari ekin dio Steilas sindikatuak. Eskoletan aniztasun sexuala lantzeko eta lesbiana, gay, bisexual eta transexualen kontrako jarrerak eskoletatik uxatzeko *Ortzadar gara* izeneko unitate didaktikoa plazaratu du. "LGTBI kolektiboak, ikasle nahiz langileek, hezkuntza-sisteman bizi duten egoerak beraraizko lanketa" behar duelako.

Bullying homofobikoa da gaur egun eskola-eremuen zabalduen dagoen jazarpen-mota, 2012ko ikerketa baten arabera. Norberaren generoari dagozkion rol, estereotipo eta espektatibetatik urruntzeak irainak, tratu txarrak, bazterketa eta oro bat bullyinga eragiten die ikasle asko eta askori. Haatik, jazarpen-mota hau ez da soilik gay eta lesbiana izateagatik gertatzen, baizik gizarteak ezartzen duen genero arautik aldentze hutsagatik sufritzen dute haur askok. Steilasek ondu duen unitate didaktikoarekin jazarpen homofobikoa saihestu nahi da.

"Aniztasunaren jabe gara eguneroko jardunean, eta aniztasuna mota askotakoa izan daitekeela begibistakoa da. Aniztasun kognitibo eta intelektuala hartzen zen kontuan pasaden mende, baina bestelako aniztasunak ailegatu dira gure eskolelara: jatorri ezberdineko ikasleak etortzearekin batera, arraza, erlijio, janari,





ohitura... berriak gure eskoletan sartu dira. Aitzitik, betidanik gure artean izan den aniztasun afektibosexuala eta genero aniztasuna ezkutatuturik izan da gizartearen eta eskoletan". Hala irakur daiteke *Ortzadar gara* unitate didaktikoaren sarrerako testuan. "Azken urteotan protagonismoa hartu du aniztasun-mota honek, baina gehienetan persona hauekiko gorrotoak sortu dituen ondorio lazgarrien



ondorioz. Ezagutza-ezak, aurreiritziak, beldurrek, fobiek, gorrotoak LGTBI+ komunitatea baztertu, zokoratu, kikildu, mugatu, erasotu eta erail egin du".

Orain arte kolektiboaren aldarrikapen nagusia LGTB-ikasleen babes neurriak hartzea izan da, baina



ORTZADAR GARA **Homofobiatik prebenitzeko unitate didaktikoak**

Egilea: Steilas
Webgunea eta deskarga:
www.steilas.eus

Unitate didaktikoekin landu nahi diren oinarrizko gaitasunak:

- Gaitasun soziala eta herritarrena.
- Autonomiaz bizitzeko eta norbere ekinez aritzeko gaitasuna.
- Hizkuntza-komunikazioko gaitasuna.
- Informazioa lantzeko gaitasuna eta gaitasun digitala.
- Kultur gaitasuna eta gaitasun artistikoa.

Edukiak:

- LGTBI+ bandera edo ortzadar bandera ezagutu.
- LGTBI+ akronimoaren esanahia ezagutu.
- Koloreen esanahiaz eta erabilpen sozialaz hausnartu.
- Emozioak identifikatu.
- Gaitasun sozialak.
- Taldea lan egiteko jarrerak.
- Harremanak errespetuz eta berdintasunez ezarri.

Helburu didaktikoak:

- Geure ezaugarri indibidualak baloratzea eta estimatzea.
- Pertsonen berezitasun indibidualak errespetatzea.
- Gure jarrerak eta gaitasunak garatzea, beren gaineko presio soziala ikusiz eta beren buruak onartzeko eta babesteko gaitasuna landuz.

Steilasen arabera, prebentzio eta informazio-bideei ere ekin behar zaie: “Aniztasuna aberastasuna da, eta eskoletan zein gizartean dagoen aniztasuna arazo baino, aukera pedagogikoa dela sientzi eta erakutsi behar dugu. Ez dugu uniformea den jendartzean bizi nahi”.

LGTBI+ aldarrikapen egunen gaineratik (martxoaren 31: transexualitatearen ikusgarritasun eguna; apirilak 26: ikuspen lesbikoaren eguna; maiatzak 17: LGTBIfobiaren aurkako eguna eta ekainak 28: LGTBI+harrotasun eguna) urteko egun guztietan aniztasun afektibosexuala eta sexu zein genero aniztasuna, hizkeran, jarreran, erantzuntan kontuan izatea proposatzen du unitate didaktikoak.

Haur-eskoletatik hasita, Haur Hezkuntzarako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta euskaltegietan lantzeko unitateak

ondu dituzte. Informazio zabala eta jarduera zehatzak proposatzen dituzte etaparik etapa. Kasurako, Haur-eskoletan nabarmentzen da haurren, langileen, familia-ereduen aniztasunak isla izan behar duela egunerokotasunean, hezitzailearen jardura eta ekintzetan, nola materialetan... “Aukera monokromatikoa baino, eredu bakarra agertzea alegia, aukera koloretsua agertu behar dugu, oparoa: ezberdintasunak ezagutzen eta baloratzen irakasteko une ezin egokiagoa da”. Eta horrela, etaparik etapa, informazioa osatzen doaz unitateak, Haur Hezkuntzako etaparako, adibidez, 11 jardura proposatzen ditu sindikatuak.

Ortzadar gara unitateez gain, bigarren atalean, ikastetxearen egoera aztertzeko galdera sortatik abiatu, Steilasek *Ikastetxe LGTBI lagun* izateko proposamenak egiten du ikas-material honetan.

ATZEKO ATETIK



ESKAINZA

ANGEL ERRO

IDAZLEA

Gurasoak diren adiskide bikote batek idatzi zidan orain gutxi laguntza eske. Haien alabarekin hiru urte egon den irakaslearentzat opari bat prestatzen ari ziren eta bi lerroko eskaintza egin nahi zioten, baina ez zekiten esker ona nola adierazi. Gutxi edo asko, gaizki edo okerrago, idatzi ohi dugu-noi tarteka gertatzen zaigu gertuko (edo ez hain gertuko) norbaitek lerro batzuk, une bereziren batean idatzi edo irakurri beharrekoak, eskatzairena: hileta edo ezkontza batean, maiteari esatekoak, zein aurreko eguneko hauek bezala, zure alabaren hezkuntzaz arduratu den pertsonari eskaintzekoak. Ez dut inoiz gaizki hartzen. Jakin badakit sentimenduek eta haiek adierazteko gauza izateak (edo zeure burua gauza ikusteak) ez dutela zertan bide beretik joan eta, berez, susmoa dut idazlearen ofizioa hauek bezalako kasuetarako asmatu zela. Hori bai, ez dut beti baiezkoa ematen. Eguna nola dudan, kasuak nola hunkitzen nauen edo, izan nadin zintzoa —idazlea naiz azkenean—, zer etekin aterako dudan.

Oraingoan eskaerak eman dit zer pentsa. Ez naiz guraso eta, irakasle hasteko oposizio batzuetara aurkezten ez naizen bitartean, guztiz utzitakotzat eta iraganekotzat dut hezkuntzako mundua, baina oraindik ez lehen maisu/maistra batek zer marka uzten duen ez gogoratzeko edo nire gurasoek nire lehen maistrarekiko gorde izan duten maitasun eta begirunea gogora ezin ekartzeko bezain utzi eta iraganeko. Bi oroitzapen hauen bidegurutzean jarri eta hortik jo nuen, seme-alabarik banu, edo bestela nire gurasoen izenean, idatzi nahi izango nukeen esker onezko eskaintza. Handitzean baino ohartzen hasten ez zaren lana da lehen irakasle batena. Ereitetik emaitzaz konturatu bitarteko aldian gurasoek baino ikusten ez dutena eta maiz gurasoengandik ikasten dugu geure irakasleak erretrospektiboki estimatzen.

Triangeluzko harreman honek ez du beti funtzionatzen, baina funtzionatzeotan hiru erpinak beharrezkoak dira. Zirkuitoa abiarazten duena —utziezadazue mengel jartzea— maitasuna da, hezkuntzaren une

ezberdinetan hirukiaren norabide batean edo bestean doana. Massimo Recalcati psikoanalistak, polemikoa izan daitekeen terminoa erabiliz, erotismoaz hitz egiten du: “Benetako hezkuntzak maitasuna du sustatzen, erotikoa da erotiko, psikoanalisian transferentzia deritzogun fenomeno den oldarra berez helarazteko gauza da. (...) Maisu/Maistra da maitasunezko transferentzia hori, ikasleak sortzen duena, bere burutik jakitearen objektura aldarazten dakien hori. Maitatua behar du jakintza maite duen neurrian, jakintza bera ikasleen irrika eragiten duen objektua bilakaturik”. [Aipua, nik euskaratua, Iñigo Gabancho irakasle donostiarraren *In angulo cum libro* blogeko “Telémaco busca profesor. Una reivindicación del deseo de saber” artikulutik hartu dut]

Nago, edo behintzat Iruñeko irakasle batek jaso duen eskaintza konpartituan defendatu dut, jakintzaren maitasun (transferitu) hori iziotu ez baina biziagotzeko orduan gurasoek —gurasoek, esan dezaket ia— badutela zer esan handia.

Hazi Hezi

haziera eta heziketarako euskal aldizkaria



Urteko harpidetza
(lau aldizkari)
20 euro

Hik Hasi, hezkuntzari
garrantzia ematen diogunon
komunitatea

www.hikhasi.eus

REGGIO EMILIAra

BIDAIA

Hik Hasik antolatuta



Egitaraua

Urriak 10, asteartea
Euskal Herriko Italiariko bidaiak.

Urriak 11, asteazkena
Aurkezpenak, formazioa eta eskolara bidaiak.

Urriak 12, osteguna
Aurkezpenak, formazioa eta eskolara bidaiak.

Urriak 13, ostirala
Aurkezpenak, formazioa eta eskolara bidaiak.

Urriak 14, larunbata
Italiako Euskal Herriko bidaiak.

Italiako REGGIO EMILIA hirian hamarkadatan garatzen ari diren hazierantz-proiektu auzerako eta emakumezkoen eraguzterako bidaiak pedagogikoa antolatzen du Hik Hasik. 0-3ko zerbitzuak eta 3-6 urte bitartekoak kudeatzen dituzten eraguzterako auzerako lanak 3-11 urte bitartekoak Loris Malaguzzi eskola ere bistatuko dira.

Duanean 1etik 20ra bitartean izango da izena ematea. Duanean 20rako bidaiak osatzen bada, bidaiak egingo dira eta matrakula formala gauratuko da.



Loris Malaguzzi (1920-1994)

- Loris Malaguzzi pedagogikoa urte saso artu zen Reggio Emiliako 0-6 urte bitarteko haurren zerbitzu eta hezikuntza ikertzen, esperimentatzen eta garatzen hango hezitzaileekin, gurasoekin eta haurrekin.
- Berekin zioen, haurrek da guztien erdigunea, eta herri osoak egon behar du inplikaturik haurren hezikuntzan.
- Bestalde, haurrek ikasteko eta garatzeko eragin biziak dituzte zioen, eta, ikasteko horiek irakleak eta hobekien garatzeko aukera izan behar duela: gorputza, hizkuntza, artea, herriak espazioa izate, herriarenak, eta abar.

BIDAIA aukerak

1. Bidaiak bakaitzarenegatik eskatzen dena..... 775euro
Reggio Emiliako bidai eta formazioa Hik Hasik bidez egingo da. Beste guztia, norberak bere kontura egingo du (bidaiak, hotela...)

2. Guztia Hik Hasik antolatuta..... 1.475 euro
Hik Hasik 1.475 euro ordainduta, bidaiak (Bibo-Bologna edo Milan hegazkinaz + Bologna edo Milan- Reggio Emilia autobusez), hotela (100 eta 100eraino), formazioa, bidaiak, izurpena eta abar guztiak sartuko dira.

Hik Hasik hezikuntzarako urtero 50 aukerako hezikuntza martutik egingo da.

Ostera: antolatzaileak esku hartzen du programa hori betetzeko zerekin laguntzeko asmoa.



Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus helbidean